

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Paroten eskubideen alde egin egin behar da **IÑAKI ALTUNA > 11**

**ALEX AGINAGALDE, Pantailak Euskaraz:** «Estrategikoa da ikus-entzunezko eduki arrakastatsuak euskarara ekartzea» **> 22**

2021eko irailaren 18a | XV. urtea • 740. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



## ESKOLA NATURA DENEAN

URDUÑAKO ESKOLAN BURU-BELARRI ARI DIRA ESKOLA KOMUNITATEARI ETA HERRIARI FRESKOTASUNA ETA BEGIRADA BERRIA EKARRIKO DIZKIEN PROIEKTU BATEKIN. ESPAZIO NATURALAK EGOKITU DITUZTE JOLASTOKIAN; JOLASTEKO, EGOTEKO ETA ESKOLAK ERE AIRE LIBREAN EMAN AHAL IZATEKO. HERRIARI ZABALDUTAKO ESPAZIOA IZANGO DA. **> 12** Endika PORTILLO | FOKU





4



8



**Nord Stream 2 gasbidea bukatuta, gatazka geopolitikoak hor dirau** 04

**Afganistandar agintari ohien jauregietako luxua, agerian** 07

**Ur sakratua pandemia garaian** 08

**Ikasgelen birnaturalizazioa, klima aldaketaren aurreko urratsa Urduñan** 12


**Galdakaon egin du «muraleslian» artistak bere azken lan ikusgarria** 16

**Elkarrizketa: Alex Aginagalde, Pantailak Euskaraz** 22

**Ez nazazu bakarrik utzi, pilota** 26

**Sarean** 28

**Juantxo Egañaren behatxulotik** 31



16



22

**SINADURAK:**

- 03 **Isidro Esnaola:** Ikuspegi berekoiak hondamendira garamatza
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Aldaketaren hazia
- 11 **Iñaki Altuna:** Paroten eskubideen alde egin egin behar da
- 18 **Unai Gaztelumendi**
- 19 **Antton Izagirre:** Parentesiak
- 19 **Miren Azkarate Badiola:** Zer da zuentzat I-11
- 20 **Ana Elosegi Serna:** Suizidatzea... irtenbiderik ikusi ezin denean
- 21 **Iker Barandiaran:** Irakurri
- 30 **Rosa Arruabarrena Santos:** Fakturazio digitala: beste azkoin-biraketa bat digitalizazio-prozesuan



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

# Ikuspegi berekoiak hondamendira garamatza

**K**lima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldearen (IPCC ingelesezko sigletan) azken txostenak hautsak harrotu ditu. Beharbada harrotu gehiegi esatea da, baina gutxienez, aurrekoetan baino oihartzun handiagoa lortu du. Ematen du larrialdi klimatikoaren kontzientzia, azkenean, hedatzen ari dela gizartean eta politikarien artean. Lehen mailako arazo bezala kokatzen dute askok, teoriarik behintzat.

Praktikan, aldiz, ezer gertatuko ez balitz bezala jarraitzen du jendeak betiko leloak errepikatzen. Horretan oso adierazgarriak dira albistegiak. Larrialdi klimatikoari buruzko informazioaren ondoren berri ekonomikoak lantzen dituzte eta inolako hausnarketarik gabe hazkunde ekonomiko mugagabea goraiatzen dute. Esate baterako, orain dela gutxi aire garraioaren datuak zabaldu dituzte eta herrialde askotan 2019ko maila berreskuratzen ari direla esan zuten. Nonbait hori berri ona da ekonomiarentzat, besteak beste, esan nahi duelako turista gehiago iristen ari direla. Turistekin batera, dirua, enpleguak ostalaritzan eta ostatuetan, eta abar. Eta inori ez zaio okurritzen aire garraioaren hazkundera eta larrialdi klimatikoa lotzea. Eta bien arteko lotura estua da. Besteak beste, ingurumenaren ikuspuntutik aire garraioa oso kutsakorra eta efizientzia gutxiagoa da eta hegazkin elektrikorik ez da epe laburrean aurreikusten. Horretaz gain, Europar Batasunean hegazkinentzako kerosenoak ez du zergarik ordaindu orain arte, badakizue, lehiakorak izateko...

Aire garraioaren birmoldaketa ezinbestekoa da. Horrek zera eskatzen du, besteak beste, hegaldi laburrak murriztea, baina aire konpainiek hegazkinetan inbertitu dute eta horrek galerak sortuko ditu; kerosenoa behar bezala zergapetzea, baina horrek bidaiak garestituko ditu, turista gutxiagok bidaiatuko dute eta ostalaritza eta

ostatuek kalteak jasango dituzte... finean, erpin askotako gaia da eta plangintza sakona eskatzen du galera ekonomikoak txikiagotzeko. Oso zaila da gauzatzea, baina hori da bidea eta oraindik ez da planteatu ere egin.

Egoera askoz larriago batean, errazagoak diren beste gauza batzuk egin ez dira bezalaxe. Esate baterako, pandemiari aurre egiteko bi neurri oso zehatz eta kostu gutxiagoak zeuden. Lehenengoa, patenteak askatzea ekoizpena zabaltzeko. Hori egin beharrean, estatu boteretsuek farmazia industriaren monopolioa babestu dute jendearen osasun eta bizitzaren aurretik. Horretan, gainera, lidergoak EBk eramane du. Bigarrena, mundu mailako txertaketa kanpaina antolatzea, talde zaurgarrien arabera. Hori egin beharrean, estatu boteretsuek nahiago izan dute txertaketa kanpaina beren erara egin,

Egoera larri batean, neurri errazak eta ondorio ekonomiko mugatuak zituzten erabaki politikoak ere ez dituzte hartu munduko boteretsuek. Nahiago izan dute etekinak pilatzea

pandemiaz horrela libratuko zirela pentsatuz. Oraindik ere harritu aurpegia jartzen dute entzuten dutenean pandemiaz inor ez dela libratuko mundu osoa libratu arte. Egoera larri batean, neurri errazak eta ondorio ekonomiko mugatuak zituzten erabaki politikoak ere ez dituzte hartu munduko boteretsuek. Nahiago izan dute etekinak pilatzea. Eta herritarrek ez dute indar nahikorik bildu erabaki horiek aldatzeko. Agian, herritarren artean ere ikuspegi berekoi hori nagusitu da.

Aspaldi ekologistek esan zuten munduko azken zuhaitza ez duela botako familia batek sua egiteko eta janaria prestatzeko, dirudun batek bere jauregiaren tarima aldatzeko baizik. Hor dago larrialdi klimatikoaren gakoak.



# LISKARRA PIZTEKO GASA

## Nord Stream 2 gasbidea bukatuta, gatazka geopolitikoak hor dirau

**H**iru urte baino gehiago lanean aritua ondoren, Nord Stream 2 gasbidea eraikitzeke lanak amaitu dira. Gudu geopolitiko eta ekonomiko baten erdian dagoen azpiegiturak honek Estatu Batuak (AEB) proiektuaren sustatzaile nagusia den Alemaniaren aurka jarri ditu. Europar estatuen artean ere sortu da liskarra, eta, jakina, baita Errusia eta Ukrainaren artean ere.

Washingtonen azken orduko aldaketa harrigarri batek Alemaniaren eta AEBen arteko konpromisoa ahalbidetu zuen gatazka ixten saiatzeko.

ENERGIA / GAUR8

Joan den ostiralean Nord Stream 2 gasbideko lanak bukatu ziren, hiru urteko lanak eta oztopo ugari gainditu ondoren. Errusiako gasa, Ukraina saihestuz Alemaniara eramango duen azpiegitura horrek Europako negua berotuko du, baina gatazka geopolitikoaren tenperaturak eta Washington eta Kieven haserreak ere gora egin du.

Hala eta guztiz ere, Ukrainak gasbidea «Kremlinen arma geopolitiko arriskutsu bat» dela ohartarazi du.

Nord Stream 2k Errusia eta Alemania lotuko ditu Baltiko-

koaren azpitik 1.230 kilometroko hodi baten bidez, urteko 55.000 milioi metro kubiko gas garraiatzeko edukierarekin, bere bikia den Nord Stream 1-en ibilbide berari jarrai-

Gasbideak azken loturak egiteko lanak Itsaso Baltikoan, joan den irailean. AFP

tuz. Hala, Errusiak bide horretatik hornitutako gasa 110.000 milioi metro kubikora igoko da.

Ukrainatik igaro gabe, Nord Stream 2k bikoiztu egingo du proiektuaren sustatzaile nagusia den Alemaniara garraiatutako gas errusiarra.

Europar gasolina eta energiaren prezioak maximo historikoetara iristen ari direnean osatu da proiektua, negua baino lehen gordetako erreserben kopurua oso eskasa den momentuan.

Gainera, Aljeriaren eta Marokoren arteko gatazkak ere Afrikatik Europara iristen den gas kopurua murriztu dezake. Aljerek Maroko zeharkatzen duen gasbidearen erabilera bertan behera utziko duela iragarri du, eta Errusiako gasaren beharra handituko du horrek.

Nord Stream 2 egitasmoa 2012an abian jarri zen eta 2015ean gauzatu. Hiru urte ondoren, lanak hasi ziren, bost estatuotako gune ekonomikoak eta jurisdikzioko urak zeharkatuz: Errusia, Finlandia, Suedia, Danimarka eta Alemania. Gazprom erraldoi errusiarrek ustiatzen du 10.000 milioi eurotik gorako proiektua, eta sektore energetikoko bost talde europarrak (OMV, Engie, Wintershall Dea, Uniper eta Shell) kofinantzatu dute.

Alemaniak, Europar Batasuneko (EB) estatuen artean gasbidearen bultzatzaile nagusia izanik, trantsizio energetikoa lortzen lagunduko diola uste du eta asmo horrekin bere lurraldea gasaren hub europar bihurtu nahi du.

### OZTOPOAK

Ukraina, berriz, epe luzera, errusiar gasaren joan-eto-







rriaren ondoriozko diru sarrerak galtzearen eta Moskuren aurrean ahulagoa izatearen beldur da.

AEBak bat datoz Kievekin eta gogor aritu dira hasieratik Ukraina ekonomikoki eta estrategikoki ahulduko lukeen azpiegitura horren aurka. Gainera, ez dute ondo ikusten, EBk Errusiako gasarekiko duen mendekotasuna areagotuko lukeela uste dutelako eta estatubatuarrek saldu nahi zuten eskisto-gasa erosteko interesa kenduko liekeelako.

Europarrak zatituta daude. Polonia eta Baltikoko herrialdeak –Moskuren aurkako jarrera gogorrena dutenak– kezkatuta daude EB Errusiako anbizioen aurrean makurtuko delako.

Alemanian bertan ere, iritzia ez da ahobatezkoa: berdeak erabat kontra daude eta iraila-

ren 26ko hauteskunderen ondoren Gobernuan parte hartzeko aukera izan dezakete.

Moskurekin izandako etengabeko gatazka diplomatikoek, Navalny auzitik zibererasoen susmora arte, proiektua birpentsatzeko deiak elikatu dituzte, baita Angela Merkel alderdi kristau-demokratikoa ere. Alferrik.

Alemanian DIW ikerketa ekonomikorako institutuak 2018an egindako txosten baten arabera, gasbideak Alemaniako eta Europako «gas naturalaren eskaria nabarmen gainditzen duen iragarpenak» zeuden.

#### URTEBETEKO GELDIALDIA

Donald Trump Ameriketako Estatu Batuetako presidentea ohiaren administrazioak kolpe gogorra eman zion proiektuari, 2019an lege bat onartu bai-

Lubminen, Alemanian, gasbidearen zati bat joan den martxoan.  
Tobias SCHWARZ | AFP

tzuen, haren eraikuntzan parte hartzen zuten enpresei zigorrak ezartzeko.

Zenbait enpresa, presioaren ondorioz, proiektutik erretiratu ziren, bereziki gunea ezaldu zuten aseguru etxeak.

Izan ere, Allseas enpresa suitzarrak, Nord Stream 2ko itsas azpiko zatiaz arduratzen zena, Baltikotik behin betiko ateratzea erabaki zuen.

2018ko apirilean hasi ziren gasbidea eraikitze lanak 2019ko abenduan eten ziren, Alemaniako eta Danimarkako uretan 150 kilometro hodi jarritzea bakarrik falta zenean.

Urtebete geroago, beste aukerak bilatu ondoren, Errusia lanaren azken zatiaz jabetu zen eta lanari berrekin zioten. Azkenean, Gazpromek joan den asteko ostiralean iragarri zuen hodia erabat osatuta zegoela.

#### URRIAN LEHENENGO HORNIKETA

Gazpromeko zuzendari exekutiboak, Alexei Millerrek, egingo adierazpenen arabera, lehen gas horniketarako aurten egin beharko lirateke, behar bada urrian.

Washingtonen ezusteko aldaketak ahalbidetu zuen proiektuak bere bidea jarraitzea.

Joe Biden demokratikoa Nord Stream 2ren aurkako jarrera gogorarekin hasi zuen agintaldia, bere aurrekoen ildotik.


Baina AEBetako administrazioak maiatzaren amaieran iragarri zuen uko egiten ziola Nord Stream 2 AG enpresa, gasbidearen ustiaren arduraduna, zigortzeari. Modu horretan, zerbitzua ematen hasteko funtsezko oztupo bat desagertu zen.

Hori onartzeko, AEBek akordio bat iragarri zuten uztailaren amaieran Alemaniako Gobernuarekin, itxuraz liskarrari amaiera emanez. Hitzarmenaren xedapen nagusien artean bi dira nabarmenenak: Moskuren aurkako balizko zigorrak, baldintzak aldatuko balitu; eta Washingtonek eta Berlinek batera gas errusiarrak Ukrainatik igarotzea bermatzen duten neurriak hamar urtez luzatzearen alde egiteko konpromisoa.

Joe Bidenek proiektua blokeatzeari uko egin zion, beranduegi zela kontuan hartuta eta Washingtonek beste gatazka batzuetan sartuta zegoelako, bereziki Txinarekin.

Eta hortaz, Alemaniaren lan-kidetza ziurtatu nahi duen aliantzaren alde egitea hobe zela pentsatu du.

Aurkakoen arabera, Nord Stream 2 onartzea Ukrainaren interesei traizio egitea da, Mendebaldearen aliatua baita Moskuren aurrean.



Gazpromek bukatuta zegoela iragarri eta berehala, Ukrainako presidentetzak zera aldarrikatu zuen: «Ukraina errusiar proiektu politiko honen aurka borroka egingo du amaitu arte, gas horniketa hasi eta gero ere bai».

Alemaniko arautzaileak onespina ematen badu, Dmitry Peskov Kremlinako bozeramaileak lehenbailehen martxan jartzea eskatu du.

Maria Zakharova Errusiako Atzerri Ministerioaren bozeramaileak esan zuenez, Gazprom aipatuz, lehen gas hornikuntzak «urte amaieran egin daitezke munduko eraikuntza energetiko handienetako honen bidez».

Ukrainan zehar egin ohi den ibilbidea saihesten duenez, Mendebaldearen aliatu horri urtean mila milioi eu-

ro inguru kenduko dizkio zirkulazio kostuetan –urtean 1.500 milioi dolar jasotzen du–. Horrek Moskuren aurrean ahulago egingo ote duen ere beldur da Kiev, eragin-palanka garrantzitsu bat kenduko diolako eta, beraz, Errusiak haren aurkako gatazka areagotu dezakeela uste duelako.

Kritika horiei erantzunez, Angela Merkel Alemaniako kantzilerrak abuztuaren amaieran Ukrainan azpimarratu zuen Berlinek ahal duen

**Joe Bidenek proiektua blokeatzeari uko egin zion, beranduegi zela kontuan hartuta eta Washington beste gatazka batzuetan sartuta dagoelako, bereziki Txinarekin.**

**Ukrainako presidentetzak berehala aldarrikatu zuen: «Ukrainak errusiar proiektu politiko honen aurka borroka egingo du, gas horniketak hasi eta gero ere bai».**

Errusiako Jamal penintsulako Bovanenkovo gas eremuko oliobideak, zirkulu polar artikoan. Alexander NEMENOV | AFP

guztia egingo duela 2024an amaitzen den Errusia-Ukraina igarotze kontratua hamar urtez luzatzeko, eta berretsi zuen Moskuk ez duela gasa arma gisa erabili behar, horixe jaso zuela AEBekin egindako hitzarmenak.

#### GARAIPEN ESTRATEGIKOA

Halaber, Moskuk «arma» bezala erabiltzen badu edo Ukrainaren aurkako «eraso gehiago» egiten badu, EBren barruan Errusiaren kontrako zigorrak bultzatuko dituela esan du Berlinek.

Dirulaguntzak ere agindu zizkion, Ukrainako «trantsizio energetikoa» laguntzeko.

Alexei Miller Gazpromeko kontseilari delegatuak esan duenez, Ukrainatik igarotzen den gas horniketak 2024tik aurrera ere jarraitu egingo du «ekonomikoki bideragarria bada».

Baina Volodymyr Zelensky Ukrainako presidentearen ustez, ez da nahikoa eta Nord Stream 2 «arma geopolitiko arriskutsutzat» jotzeko esan zion Merkeli.

Dmitri Marinchenko Fitch agentziako lehengai eta natura baliabideen taldeko zuzendariaren arabera, «egitasmoa azken etapan sartzea, eraikita izatea eta laster gasa ponpatzen hastea Moskuren garaipean geopolitikotzat jo daiteke, AEB eta hainbat herri europarren aurkako jarrera gogorra gainditu duelako».

Kremlin zuhur agertu da eta Errusiaren garaipea den edo ez ez du baieztatu nahi izan. «Garaileak hornitzaileak zein kontsumitzaileak izango dira», adierazi du.

Kieven beldur geopolitikoaren aurrean, Moskuk, eta baita Alemaniak ere, beti defendatu izan dute proiektu ekonomiko bat baino ez dela.

Gasbide berriari esker europarrek gutxiago ordainduko dutela azaldu du Errusiako Gobernuak, gas errusiarra garraiatzeko bide honek Ukrainatik pasatzen denak baino 2.000 kilometro gutxiago dituelako.

Oraindik, hala ere, azken oztopoak gainditu behar ditu Nord Stream 2 gasbideak urtea bukatu baino lehen gasa Alemaniara bidaltzeko.

Joan den abuztuan epaitegi alemaniar batek ebatzi zuenez, azpiegitura honek Europar Batasunak energia enpresei ezartzen dizkien arauak bete behar ditu. Erkidego osan gasa ekoizten, garraiatzen edo hornitzen dituzten enpresak banatuak edo «bereziak» izan behar dira, merkatuko lehia bermatzeko. Gazpromek helegiteak aurkeztu ditu dagoeneko.





Wakil KOHSAR | AFP0

## IKUSMIRA

# AFGANISTANDAR AGINTARI OHIEN JAUREGIETAKO LUXUA, AGERIAN

Abdul Rashid Dostum «gerra gizon» afganistandarra da, eta talibanen etsai amorratua. AEBetako soldaduek alde egin zutenean Uzbekistanera ihes egin zuen berak, «ausartak». Talibanek erakutsi egin dute Kabul hiriburuan hark zuen jauregia, luxuz betea: oihan tropikala,

arrainontzi erraldoia arrain exotikoekin, altzari izugarriak, sauna-hammam-jacuzzia, barne igerilekua... Etxe hau ez da Afganistango ikuspegitik luxuzkoa den bakarra Shirpur auzoan, mendebaldeko herrialdeen enbaxadetatik gertu. Kabulgo biztanleek «lapurren auzoa» esaten zioten, eraikin erraldoiak handitzeko kolaboratzaileek ez zutelako inolako erreparorik inguruko herritar txiroei lurrak desjabetzeko. Talibanak esertzen dira orain etxeotako sofatan eta eraikinak errespetatu bai baina bertan ez direla geratuko esan dute. «Guri hil osteko bizia baino ez zaigu axola». Ustelkeriaren ostean, zorarena. Ala aldrebes? Dabid LAZKANOITURBURU



# UR SAKRATUA PANDEMIA GARAIAN

Alessandro Ruta

Pandemiak gogor astindu du Lourdes, fedearen turismoaren gailurretako bat. Bezero-fededunik gabe, kontaktu fisikorik gabe, ur sakratuaz gozatzeko muga dezenterekin... pandemia garaira moldatu behar izan du Lourdesek, prozesio birtualekin eta sare sozialekin.

**F**ededuna naiz. Bai, nolabait fededuna naiz. Ez dakit katolikoa naizen ala ez. Esango nuke nire momentu espiritua-  
lak dauzkadala, hori bai. Ez dut asko praktikatzen, Gabonetan noizbait; igandeetan gutxiago, ia ezer ez. Baina zerbaitetan sinesten dut. Hala ere, gauza bat argi daukat: fedeak kontaktua behar du, zalantzarik gabe. Fisikoa edo birtuala, baina ezin da ordenagailuz edo Whatsapp bidez ostia hartu. Eskuak ematea, otoitzak elkarrekin egitea: hori da katolizismoaren ideia, nire ustez. Partekatzea, azken batean. Ziur aski, Lourdesen gertatzen da hori.

Pirinioak bete-beteta, Tourraren alde maitatutik gertu (Hautacam-en ia urtero dago etapa bat, normalean Pauetik hasita) dago Lourdes, baina ez du aurkezpenik behar. Bernadette Soubirousen «mirariak», 1858ko Ama Birjiniaren agerraldiak, besterik ez dago. Horri buruz pelikula pare bat egin dituzte.

Hobeto esanda, ura dago, benetako Lourdeseko sekretua, edateko edo bainu bat hartzeko. Gaixo asko iristen dira egunero munduko edozein lekutatik Pirinioetako herritxo honetara, 15.000 biztanle eta 131 hotel (zenbatu ditut Interneten, agian datua ez da zuzena baina tira, gutxi gorabehera) dauzkan herritxora: haien helburua osasuna berreskuratzea da, azken aukera, tratamendu guztiak probatu ondoren.

Zerk ekarri nau Lourdesera? Italiatik bueltan, geldialdi bat egin behar nuen. Polita da herritxoa. Boulevard de la Grotte da bere bihotza, apurtxo bat aldapan gora (edo behera, noski, beste aldetik) dagoena, hotelez, jatetxez eta dendaz beteta.

Hainbeste argirekin, gaeuz Mallorcako Palmaren erdigunea dirudi, baina bere kutsu erlijiosoarekin. Dendetan beharpenak daude: arrosarioak 1,5 euro, eta Maria Jesusen Amaren gurutzeak 2 euro, adibidez. Hemen, antza, pandemiaren krisiak kolpe latzak eman ditu.

Bide batez, nola izaten ari da bizitza, covid garai honetan? Gogoratzen dut kasualitatez orain dela urte bat hotelen prezioak begiratu nituela eta oso-oso merkeak zirela, ia oparitura. Jabeek nahi zuten jen-

dea berriro etortzea, zeresanik ez, bezero-fededunak falta baitziren.

Zer egingo luke Lourdesek turistarik gabe? Basamortu bat izango litzateke, adineko jendearentzat batez ere, baina laguntzaileentzat, medikuentzat eta apaizentzat infernu bat izango litzateke. 2020ko uztailaren 16an lehendabiziko «prozesio birtuala» antolatu zuten, zorionez. Lehenago, otsailetik aurrera, dena bertan behera geratu zen.

Lau hilabete jenderik gabe, kontakturik gabe: momentu berri bat izan da, gripe espainiarrarekin ere ez zen gertatu. Pandemiaren efektua da, turismoari begira. Pandemia «modernoren» efektua, hain zuzen ere.

Oso modernoa da ere, egia esan, Lourdeseko estruktura. Youtube kanal bat jarri zuten martxan, egunero mezak eskaintzen diena ia 400.000 harpidedunei, Instagram eta Facebookeko profilak. Bernadetteren guztiz kontrakoa. Bernadette gizajoa, analfabetoa

zen neska, bertako dialektoa besterik ez zuen hitz egiten eta bat-batean famatua Estatu frantsesean eta mundu guztian. Jatorra zen neska: bertsio «ofizialak» gazte indartsu eta arduratsu gisa deskribatu zuen, baina ofizialtasunaz kanpo irakurri nuen ardoa eta tabakoa gustatzen zitzaizkiola. Egia baltz, zer-nolako idoloa. Azken batean, neskato bat zen Ama Birjina agertu zitzaionean, 14 urte baino ez zituenen.

## ERRITUALAK

«Ez atera argazkirik, mesedez. Bestela arazo bat izango litzateke guretzat», xuxurlatu dit emakume batek. Italiarra den laguntzaile bat da, hegoaldekoa: bere hizkera oso ondo ezagutzen dut, nire aitona-amonen oso antzeko doinua du. Urtero, azaldu didanez, Italiatik hegazkin bat hartzen du, Pirinioetaraino. Berarekin dago beste emakume italiar bat, ez dira mojak, laguntzaileak baizik.

Erromesak, Lourdeseko Pio X.a basilikan 9.000 pertsona bildu zituen meza batean.  
Fred SCHEIBER | AFP







Goian Masabielle, Bernadetteri Ama Birjina agertu zitzaion kobazuloa. Behean, Lourdesen saltzen dituzten ur sakratua gordetzeko ontziak eta botilak.

GAUR8

Sailkapen birtual batean, italiara izango litzateke Lourdesen gehien entzuten den hizkuntza. Frantsesa baino gehiago. Gehiago eta gehiago, izan ere denda askok itxura eta izen italiarrak dituzte; pizzeriek eta fededunek zeresanik ez. Baina nire herrialdean fedea sineskeria da, magia eta sorginkeriaren artekoa, batez ere hegoaldean. Oso normala iruditzen zait, beraz.

Dena den, Lourdeseko lekuri sakratuenean gaude: Massabielle-n, Berna-

detteri Maria agertu zitzaion haitzuloan. Normalean, pandemia aurretik, bizirik ateratzen zen jendea. Pribatutasun gehiago izateko, toallaren bat igotzen zuten. Bainatu eta gero (uraren temperatura 12 gradukoa da, Kantaurikoa udan baino askoz hotzagoa, alegia) berriro ere kanpora, otoi egitera. Denak gertu, denak elkarrekin.

Gaur egun hori ez da posible. Ezin zara uretara sartu. Ura beti dago oso hotza, baina orain aurpegian bota eta

edan egin behar da. Sentsazioa polita da, musukoa kentzea eta «likido sakratua» hartzea: laguntzaileek pitxer batetik ematen dizute, noski, hori ere osasun arazoengatik.

Beraz, ez da benetako errituala, baina magia edo purifikazioa mantentzen da. «Probatu nuen lehen aldian – azaldu dit berriro ere aurreko emakumeak – sentsazio paradisiakoa izan nuen». Egia esan, edaten ari naitzela, alde batetik arraroa sentitzen naiz, jolas parke batean banengo bezala. Egiten ari naizena zer da? Zerbait erlijiosoa edo erakarpen turistiko bat, Port Aventura-n bezala? Ez daukat gaixotasunik, antza, mina ematen didan azkenagin bat izan ezik, orduan zein da nire helburua? Zenbat jendek, nik baino lehen, egin du gauza bera?

Hausnarketa bat bururatu zait. Hemen go fededunek edo parte-hartzaileek zergatik jartzen dute musukoa orduan? Ez lukete behar; gaitza baldin badaukate nahikoa da ura edatea. Notre Dame elizan, panorama menderatzen duen basilikan, hainbat eta hainbat plakatan Bernadetti eskerrak ematen zaizkio, baita Ama Birjinari ere. Gaixotasun larriak joan ziren, mirari asko gertatu ziren eta Lourdeseko artzaina santua da. Covidaren aurka norbait saiatu da?

Massabielleko kobazuloan beste laguntzaile batek, joan aurretik, zera esan dit: «Egon lasai argazkiarekin, egizu bat, baina azkar-azkar, ez zaitzatela ikusi». Orduan aprobetxatu dut eta alde egin dut: klik, nire errituala eginda.

**Zer egingo luke Lourdesek turistarik gabe? Basamortu bat izango litzateke, adineko jendearentzat batez ere, baina laguntzaileentzat, medikuentzat eta apaizentzat infernu bat izango litzateke**

**Lourdeseko sekretua eta mundu guztiko fededunak erakartzen dituen ura da, edateko edo bainua hartzeko. 15.000 biztanle eta 131 hotel dituen Pirinioetako herritxo honetara munduko edozein lekutatik etortzen dira gaixoak**





**Saioa Aginako Lamarain**  
Psikoterapeuta

## Aldaketaren hazia

**D**uela hiru hamarkada inguru, positibotasunaren filosofiak ezagutarazten hasi ziren. Pentsamendu lerro gehienak Estatu Batuetan sortu ziren eta mundu osoan oso ezagunak bihurtu ziren. Euren alderdirik muturrekoenean, filosofia mota hauek zoriontasuna ia inposatu egiten dute bizitzeko modu bezala. Baikortasun itsu eta ñabardurarik gabekoaren ideia bultzatzen dute, edozein zirkunstantziaren gainetik ezarri behar dena. Egoeren, pertsonen edo bizitzaren beraren edozein alderdi negatibo saihesteko gonbidapena dira. Suposatzen da, beraz, pertsonok betiko alaitasun, gogo on eta poz handiko egoeran bizi beharko genukeela, bizitzan tristura, mina edo frustrazioa sentitzeko kontraesanik, galerarik eta motiborik ez balego bezala. Ez da kontuan hartzen ezbehar egoera baten atzean borroka erreakzio bat dagoela. Horrela, borroka horretan autoikaskuntza sakon eta aberatsa gertatzen da, aldaketarako hazia.

Ildo horretan, “La sociedad paliativa” Byung-Chul Han filosofoak argitaratu duen azken liburuak minak eta haren desagertpenak gizarte garakidean duten papera aztertzen du. Hanen ustez, minarekin ezartzen dugun harremanak sortu dugun gizarte mota agerian uzten du; gizarte batek minari aurre egiteko duen moduak asko esaten du horri buruz. Eta gurearen kasuan, ez du ezer onik esaten: mina sortzen duten egoerak tabu dira eta mina adierazteko emozioak ere bai.

Bere liburuan hausnartzen du, gizarte batean min arrasto txikiena ere ezkutatzen denean, mundu osoago, orekatuago eta zoriontsuago bat eraikitetik urrun, gatazkarik ezak

“lo dagoen” demokrazia bat ezartzen duela. Gizarte “paliatibo” honen bizi-modu mingabeak, negatibotasunak duen gaitasun eraldatzailea gertatzea eragotzi egiten du. Baikortasunaren izenean, bakoitza bere buruaz arduratzen da soilik, egoera sozioekonomiko eta politikoa kritikoki zalantzan jarri beharrean. Hau da, edozein minen jatorriari gure baitan bilatzen diogu erantzuna eta, horrela, zoriontasuna lortzeko «bakoitzak bere buruaz eta bere zorionaz kezkatu behar duela sinetsarazi digute». Era honetan, zoriona arazo pribatu bihurtzen da.

**Arima zaintzen ahalegintzen gara eta inguruan duguna ahazten dugu.** Gizarte bezala, agian, beharrezkoa dugun aldaketaren metxa baztertzen dugu, aldaketa sakonek mina badaukarte. Kanpoko minetik ihes egiteko,

zoriona gure baitan bilatzen dugu soilik, talde bezala gertatzen zaigunari dagokionez itsutuz, “talde bezala sentitutako mina” itoaraziz, “gure zilborrari” begiraturaz.

**Pentsamendu lerro batzuek zoritxarraren aurkako mezuak iragartzen dituzte.** Kosta ahala kosta saihestu behar dela diote, eta bizitza zoriontsu bat zailtasunik eta oztoporik ez duena dela adierazi dute. Era berean, edozein zailtasun ondorezaren iturri delako ideia sustatzen dute, eta, beraz, desagerrarazi egin behar delako ideia. Nahi ala ez, zoritxarra bizitzaren parte da. Mina existitzen da, eta hori ukatzeak ez du desagerraraziko. Izan ere, zailtasunak errealitate baliotsua dira, existentziari gorputza eta zentzua ematen diotenak. •

saioaaginako@gmail.com



Mina existitzen da, eta hori ukatzeak ez du desagerraraziko.

Idoia ZABALETA | FOKU



{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

# Paroten eskubideen alde egin egin behar da

**E**uskal presoek eskubideen alde ekimenak, adierazpenak eta mobilizazioak egitea zilegi al da? Bai, eskubideak aldarrikatzea zilegi da. Euskal presoek eskubideen alde ekimenak, adierazpenak eta mobilizazioak egitea beharrezkoa al da? Bai, beharrezkoa da, eskubide horiek urratuak direlako. Euskal presoek eskubideen alde ekimenak, adierazpenak eta mobilizazioak egiteak lehentasuna al du? Bai, lehentasuna du, enfrontamendu gordinena ekarri zuen aurreko zikloa gainditzeko gai horri ere behin betiko aterabidea eman behar zaiolako. Sufrimendua une honetan hor dagoelako gehienbat, eta luzera ezingo delako benetako bakerik eraiki presoek kartzelan segitzen badute.

Paradoxikoa da ETA gogorki ari zenean ez zela halako polemikarik sortzen. Beste batzuk eta askoz ere handiagoak bai, baina halakorik, ez. Orduan Arrasaten Unai Paroten eskubideen alde mobilizazio bat egin izan balitz, ez zen izango hainbesteko zalapartarik. Esanguratsua da, beraz, sektore batek bakearen eta elkarbizitzaren alde (hamar urtez) urrats asko egin dituenean beste sektore batzuk gero eta gotorrago agertzea, presoek eskubideen aldeko mobilizazio batekin pipertzeraino. Eskuin muturrari ez ezik, jeltzaleei ere halako ekimenak desitxuratzeko deigarria da. Aitor Estebanek «omenaldia» hitza erabili zuen zehazki.

Biktimen sentimenduak babestea baino askoz ere gehiago ezker abertzaleari erasotzea dute zio. Nonbait, ezker abertzalea borroka armatua goraiatzeko ari dela irudikatu behar dute, oraindik iraganari iltzatua dagoela azpimarratzeko eta aurrera begira alternatiba gisa kamusteko. Estatuak hala behar du independentziaren aldeko prozesurik ez errotzeko, eta Urkulluk hala desira du bere hitzetan gero eta higituago den autonomia kudeatzen segitzeko.

Ongietorrien harira aldiro sortu den polemikatik halakoetan tentuz eta sentsibilitatearekin jokatzeko komeni dela ondoriozta zitekeen, are gehiago ETaren amaieran nahikoa garbi geratu zenean ardatza ezin zitekeela izan borroka armatuaren aldarria egitea. 2018an haxe utzi zuen esanda ETak berak eskainitako azken el-karrizketa luzean: «Gure helburua une honetan ez da borroka armatuari gorazarre egitea. Badakigu horrek ez duela errazten datorren fase politikoak eta gatazka-ren konponbideak eskatzen duten prozesua. Eragindako kaltea errespetuz aitortzeko ordua da, besteek jasan dutenaz zintzotasunez jabetzeko, eta berradiskidetzeko ahalegina egiteko. Sendabidea bilatzeko ordua da, guztien eskubideak errespetatuz eta arazoei konponbide demokratikoak eskainiz».

## Esanguratsua da sektore batek bakearen eta elkarbizitzaren alde urrats asko egin dituenean beste sektore batzuk gero eta gotorrago agertzea

Arrasateko ekitaldiarekin sortutako zalapartak errealitate bat erakutsi digu: hainbatentzat ongietorriena aitzakia hutsa zen betikoa birsortzeko. Azken hamar urteotan eskema bera erabili dute, aurre urrats bat egon den bakoitzean, bizikidetzarako onuragarri izan zitekeen ekimen bat egon denean, berandu baino lehen, beste polemika bat bilatuz. Oraingoan giza eskubideak aldarrikatzea ere estigmatizatzeraz ausartu dira. Eta hori onartezina da. Paroten eskubideen eta kalera-tzearen aldeko mobilizazioak egin beharrekoak dira.

Hain zuzen, hori da gakoa, egin beharrekoa egitea, duela hamar urte abiarazitako bidetik baztertu beharrekoa baztertzuz, moldatu beharreko moldatuz eta berretsi beharrekoa berretsiz. •



**E**skolako jolastokia birnaturalizatzeko proiektua deitu diote, klima larrialdiari aurre egiteko espazio gisa ere aurkeztu da, eta, hala ere, izendapen horiek ez dute proiektua bere osotasunean deskribatzen. Horietarik guztietarik baduelako, eta gehiago ere bai. Eskola komunitate osoaren begirada eraldatzetik harago doa maila askotan freskotasun berria dakarren egitasmoa. Hezkuntza ulertzeko beste modu bat eraikitzen du, naturari konektatuta ikasiz, haren zaintza landuz eta herri osoaren zerbitzura egongo den espazio berezi bat sortuz. Klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko ekimenen bide-tik doa egitasmoa.

Proiektua Lakuako Hezkuntza Sailean aurkeztu dute, baita IHOBEn ere, eskolako jolastokiaren birnaturalizazioa klima larrialdiaren aurreko ekimena ere baden neurrian. Bietan oso harrera ona izan du egitasmoak, baina oraingoz ez dute laguntzarik zehaztu.

Finean, Urduñako eskolan hasi berri diren lanekin espazio naturalak egokituko dituzte jolastokian, jolasteko, egoteko eta eskolak ere aire zabalean eman ahal izateko. Egokitzapen hori pausoz pauso joango dira egiten, eragile ezberdinen elkarlanean oinarrituta. Eskola funtzioari dago-kionez, horrek lanketa didaktiko eta eredu pedagogiko berri bat ekarri ditu: ikasi beharrekoa naturan bertan ikasteko, edukiak, programazioak, inguruna egokitu dira. Barruko ikasgelak ez dira izango jada ikasteko espazio bakarrak.

Ekimena forma hartzen ari da ikasturte honetan, baina badu aurretiko ibilbidea ere.



## ESKOLA NATURA DENEAN

### Ikasgelen birnaturalizazioa, klima aldaketaren aurreko urratsa Urduñan

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

Urduñako eskolako jolastokian birnaturalizatzeko lanak egiten ari dira, aldaketa klimatikoaren aurreko aterpe osasungarri bat sortzeko. Eskola denborak ere birnaturalizatzen ari dira proiektu pedagogiko berri batekin. Eskola orduetan ikasleen aterpea izango da, gainerakoetan herritar guztiena.

Pasa den ikasturtean urrats txiki batzuk egin zituzten norabide horretan, eta baieztatu ahal izan zuten esperientziak zenbaterainoko aukera ugartasuna eskaintzen duen eta haurren artean zer-nolako eragina duen, bai edukiak jasotzeko eta barneratzeke moduan, bai haien portaeran, egoteko eta erantzuteke moduan.

Urduñako esperientzia aitzindaria da gurean, baina ibilbide luzea egin du beste herrialde batzuetan, Katalunian, esaterako.

Proiektu honetan, eskutik doaz Urduñako Udala eta eskola publikoko komunitate osoa: irakasleak, ikasleak eta familiak. Eskolako jolastokian bertan, lanak burutzen ari di-

ren bitartean, Itziar Biguri alkatearekin, Iraide Ortiz San Vicente eskolako ikasketaburuarekin eta proiektuaren arimetako bat den Ivan Tellax hezitzaile eta permakultorearekin egin du hitzordua GAUR8k.

Permakulturaren definizioa eskatuta, hiru ardatz nagusi dituen «bizitza planteamendu bat» dela azaldu du Ortizek: pertsonen zaintza, naturaren zaintza eta soberakinen banaketa. Testuinguru horretan, pertsona, animalia eta landarediarentzat habitat jasangarriak egokitzea da filosofiarekin lotuta dagoen praktiketako bat.

Permakultura eskolako egitasmoa eta herrian martxan jarritako beste ekimen eta dinamika batzuk jantzi dituen pentsaera da. Izan ere, 2018an, permakultura eta hezkuntzari buruzko jardunaldiak egin zituzten Urduñan. Bertan, lehen kontaktua izan zuten Globus Vermellekin, filosofiarekin bat





egiten duen arkitekto taldearekin. «Arkitekturaren helburu nagusia alderdi fisikoan, ingurumenekoan, psikologikoan eta emozionalean giza beharrak modu jasangarrian eta ingurumena errespetatuz asetztea dela uste dugu», diote euren lanaren ikuspegia aurkezteko.

#### ARKITEKTOAK ETA HEZITZAILEAK

Taldeko arkitektoak hezitzaileak ere badira. Diseinu holistikoa jasangarrien bidez eskola jolastokiak espazio hezitzaileak bilakatzeko mugimendua jarri dute abian, «Klimaren aldeko jolastokiak» dinamikaren barruan. Programa horrek Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren Biodibertsitateko Fundazioaren finantziatzea du sei erkidego autonomotan zazpi proiektu pilotu abian jartzeko.

Urduñakoa proiektu horietako bat da. Globus Vermelleko udalerritik horretan aurretik zeuden esperientzia batzuk

ezagutzen zituzten, bereziki eskolako eta zaharren egoitzako jantokiei zerbitzua ematen dien udal sukaldearen proiektua. Jaki ekologikoen eta hurbileko ekoizpenetako produktuen erabilera oinarrituta, eskolako ikasleentzako eta egoiliarrentzako menuak prestatzen dituzte bertan.

Ekimen batek beste dinamika eta proiektu batzuk elikatzen dituenez, Urduñan beste batzuk ekarri dituzte. Pandemiaren aurretik, proiektu bat garatu zuten, eskola eta zaharren egoitzaren artean haurrekin batera ortuen diseinu bat

### Urduñako eskolako Globus Vermellen «Klimaren aldeko jolastokiak» izeneko programaren barruan hautatutako proiektu pilotuetako bat da

### Egitasmoak EBko «Urban Innovative Action» programan garatzen ari diren Parisko «OASIS» eta Bartzelonako «Aterpe klimatikoak eskoletan» proiektuen ardatzei jarraitzen die

Iraide Ortiz San Vicente, Itziar Biguri eta Ivan Tellaetxe, herri eskolako jolastokian. Espazio berdean eginko lan berriak eta diseinuaren zirriborro bat.

Endika PORTILLO / FOKU

egin eta lantzen hasteko, permakulturaren ikuspuntutik. Osasun egoeraren ondorioz zaharren egoitzan ezarri behar izan ziren neurriengatik proiektua geldirik utzi behar izan zuten. Hala ere, pasa den ikasturtean, eskolak bide bereko beste dinamikaren batekin jarraitzeko aholkua eskatu zion Tellaetxeri, kontuan hartuta, gainera, espazio irekiak erabiltzea izurritearen aurreko gomendioetako bat zela.

Irteera programa bat sortu zuten, talde ezberdinek tutorearekin eta Tellaetxeren laguntzarekin herrian barrena ibilbideak egiteko. Era horretara, abian ziren, naturan, aire zabalean, ematen ziren lehengo eskolak: «Ibilbide pedagogikoak oinez».

Sustatzaileek nabarmendu dutenez, ekimena ez zen naturarekin kontaktuan izatera mugatu. Eskola espazioak dira eta edukiak lantzen dira. «Curriculumaren zati bat ibilbidean lantzen zen gaiarekin lo-

tzen genuen. Adibidez, lehena basoa izan zen eta basoan era askotako jarduerak egin daitezke: Natura Zientziak, noski; Matematikak, enbor baten perimetroaren neurketarekin lotuta; Kultura, Historia... eta sormenarekin garatu dezaketen guztia», azaldu du Tellaetxek. Aurretik landutako ibilbideak ziren, beraz. Lau orduko irteera planteatzen zuten. Ikasle bakoitzak bere motxilarekin aurretik prestatutako dinamika eta jarduerak jarraitu behar zituen, sormen arloari gero eta protagonismo handiagoa emanez.

Seme-alabak eskolan dituen Itziar Biguri alkateak nabarmendu duenez, aberasgarria izateaz gain, jarduera horiek motibatzaileak ere izan daitezkeela frogatu dute. Horren harira, 1. mailako taldearekin Urduñako sarreran dagoen La Muerako ingurura joan zirenekoa aipatu du Ortizek. «Diktaketa bat egin genuen, maila horretan askotan lantzen den ariketa, irakurketa eta idazkera lantzeko, eta soinuaren diktaketa egin genuen, begiak itxita entzuten ziren soinuaren araberrako hitzak idazteko, txoria bazen txoria idatzi behar zuten... Diktaketa izaten jarraitzen du baina naturaren soinuak erabilia».

#### IKASLEAK BERDINTZEN DIRA

Eredua inspiragarria izateaz gain, ikasleen portaeran ere eragina duela gaineratu du hezitzaileak. Ortizen ustez, ereduak ikasleak berdintzen ditu. Adibide gisa, mugimendu handia behar duten ikasleak besteen maila berean daudela esan du, berdindu egiten direla, eta «lasaiago daudenez, arreta maila hobea» dutela.

Beharizan bereziak dituzten ikasleen kasuan ez dute



hain aldaketa handia sumatu baina nolanahi ere, haientzat ez da oztopoa, ikasgelan bezala laguntzaileak dituztelako ondoan.


Ikasketaburuak azaldu duenez, argi dago askoz sistema osasuntsuagoa dela ikasleentzat, baina falta da epe luzera nolako onurak dituen frogatu ahal izatea. Profil batzuetan «aldaketa oso nabaria» dela baieztatu ahal izan dute, eta Bigurik erantsi du harremanen arloan ere aldaketak ikusi dituztela, jokatzeko eta egoteko eran.

Oldarkortasuna eta gatazken intentsitatea jaitsi egiten dela ikusi dutela gaineratu du psikopedagogoa den Ortizek. «Lasaia daude, espazio gehiago hartzen dute; jolastokian, futbol zelaian daudenean denak daude zati horretan eta haserrealdiak maiztasun handiagoarekin sortzen dira eta gorrigoak izaten dira».

Haserrealdiak eta eztabaidak ikaskuntzaren parte direla zehaztu du, eta horiek kudeatzen ikastea prozesuaren zati bat dela, baina eredu honetan «bareagoak» izaten direla. Ikasketaburuaren ustez, espazioa gakoetako bat da, eremu zabal batean ikasleek badute mugitzeko eta egin nahi dutena aukeratzeko eremu zabala go bat. Batzuk zomorroak bilatzen hasten dira, beste batzuek beste gauza batean jartzen dute arreta... behatzeko eta esperimentatzeko aukeren aniztasun askoz handiagoa aurkitzen dute aire zabalean. Gainera, irteerak eta ikasgelako lanak osagarriak izan direla ohartarazi du.

#### PAUSOZ PAUSO, MALGUTASUNEZ

Proiektu pedagogikoa aldatzea ez da prozesu erraza, Ortizen hitzetan. Pasa den maiatzean



Argazkiak: Endika PORTILLO | FOKU

jardunaldiak izan ziren eskolan Globus Vermellekin, ikuspegi pedagogikotik beste esperientzia batzuk aztertzekeo tartea zabalduz.

«Guretzat, benetako erronka hori da. Jolastokiaren aldaketa fisikoa alderdi bat da, baina aldaketa pedagogiko horrek lan handia eskatzen du. Ez da bakarrik espazioen birnaturalizazioa, baizik eta hezkuntza denboren birnaturalizazioa ere bai. Beste ikastetxe horietan ikusi dugu eskola orduak ez direla egungo moduan antolatuta egoten, ikasgaien araberako ordu bete inguruko iraupenarekin... malgutasuna dago eta, adibidez, agian jolastokira irteten dira goiz osoan eta bertan euskara irakaslea eta heziketa fisikokoa elkarrekin daude lanean», esplikatu du Ortizek.

Ereduak, beraz, irakasle taldearen lan egiteko modua nabarmen aldatuko du eta koordinazio handia eskatuko du.

## ORTUAK ETA BASO JANGARRIA IZANGO DITUEN JOLASTOKIA

Eskolako jolastokian, martxan daude eraldatzeko lanak. Ohiko jolasgunea da, kiroleko kantxa du eta gunea inguratzen duen espazio natural zabal bat. Duela urte batzuk gurasoek eurek auzolanean egurrezko zenbait elementu eta jolas egokitu zituzten. Orain, asmoa da proiektua faseka garatzea, eta gauzatzeko epeak neurri handi batean lortutako finantziazioaren arabera izango dira.

Baina zer itxura izango du jolastoki berriak? Asmoa da egungo espazio berdearekin hastea eta berau eraldatzen joatea. Haize-babeseko heskai bat jarriko dute espazioa babesteko eta, gainera, CO<sub>2</sub>a hartzeko eta murrizteko hesi bat egingo dute zuhaitz autoktonoekin. Plano batera begira, Ivan Tellaetxek azaldu digu kota igo dutela puntu ezberdinetan, perspektiba ezberdinak izateko eta intentsitate ezberdinetako jolas eta

hezkuntza gunek sortzeko.

Espazioaren zati batean ortuak eta baso jangarria sortzeko lanak egingo dituzte. «Ohol txiki batez ari gara, eta bertan ekosistema txiki bat sor dezakete landareekin, loreekin, barazkiekin, landare usaintsuekin... baso batean ikusiko genukeen bezala», azaldu digu permakultoreak.

Teknika berritzaile bat erabili dute, zehaztutakoaren arabera. «Ez dugu lurrik ekarri, baizik eta geruzak eginez joan gara, adarrak enkofratuz, inausketaz txikitutako enborrak eta azkenik lur geruza txiki bat jarri da. Horrekin, behar diren mikroorganismoak sortzen dituen lurpeko substratu bat sortzen dugu, eta, gainera, erre edo hondakindegietara eramane beharrean, enkofratu egiten ditugu, eta, horrela, CO<sub>2</sub>a jasotzen dugu. Gainera, etorkizuneko ureztatzeari begira,

ura atxikitzekeo ahalmen handiagoa du, eta, beraz, ureztatzea murriztuko dugu eta nagusiki euriarekin egingo da».

Espazioaren beste zonalde batean, lur pilaketa batean, jarduera eta intentsitate ezberdinetako jolasak egingo dituztela dio, korri, jauzi egin eta igotzeko. Ikasturte honetan zehar aire zabaleko lehen bi ikasgelak sortu nahi dituzte. «Pergola modukoak izango dira, enborrak erabiliko dituztenak... hormarik gabekoak edo gehienez babestuago egoteko lastozko fardelak izango dituztenak», gaineratu du Tellaetxek. Argazkietan teilatua baino ez duten etxola moduko eraikinak erakusten ditu, baina forma ugariak izan daitezkeela zehaztu du.

Hurrengo faseetan hormigoia altxatu, lurra eta landaredia ekarri eta beste ikasgela bi eraikiko dituzte, agora bat eta jendea elkartzeko gunek bat.



Horregatik, Ortizek azpimarratzen du eredia apurka-apurka ezarriko dela, Haur Hezkuntzatik hasita eta malgutasunez, guztien artean adostuta eta gutxienez ordu kopuru bat zehaztuta.

Prozesuaren diseinua ez da ikasturte honetan hasi. Eragile ezberdinekin partekatua izan da. Proiektuan Nagore Ayesa arkitektoaren laguntza izan dutela azpimarratu dute, hainbat tailer egin baitituzte ikasleekin, bioeraikuntzari buruzkoa barne. Prozesuaren beste hanka batzuk izan dira Globus Vermellen gidaritza eta guraso elkartearekin egindako hausnarketa partekatua.

Hala ere, ikasketaburuaren ustez, arlo pedagogikoari begiratuta aurtengo zeregin nagusia ikastetxearen hezkuntza proiektu berria egitea izango da. «Lan mamitsua da, proiektu guztiak berritzen joan beharko dugulako, eta hori programazioetan txertatu behar dugu; horregatik, Hezkuntza Sailari laguntza ekonomikoaren ondoan giza baliabideak eskatzen dizkiogu».

Ildo beretik, Berritzegunera jo dute egin beharreko lan mardul horretan gidaritza eta orientazio pedagogikoa izateko, kontuan izanda «egunero-kotasunak jaten gaituela, batez ere egungo osasun egoerarekin» eta proiektu pilotu bat dela, eta hortaz beste ikastetxe batzuetan aplikagarria izango dela.

Erakundeetan proiektuak harrera ona izan badu ere, oraingoz ez dago berririk finantziazioan izango duten parte-hartzeaz. Urduñako Udalak argi dauka aurrera jarraituko duela lanekin, eta dagoen diruaren arabera izango dela gauzatze prozesuaren iraupena. Bigurik aipatu due-



Urduñako Herri Eskolako ikasleak jolastokiko espazio naturalean.  
URDUÑAKO HERRI ESKOLA



**Biodibertsitatearen babesa, CO<sub>2</sub>ko isuri-  
murrizketak eta gerizpeko aterpe osasuntsuak  
sortzea egitasmoaren zutabe batzuk dira,  
proiektu pedagogikoaren ondoan**

**Pasa den ikasturteko ibilbide pedagogikoek  
bestelako eskola mota bat probatzeko aukera  
eman zuten, eta hasierako aldaketa batzuk  
ikusi ahal izan zituzten ikaslearen artean**

nez, 170.000 euroko inbertsioa kalkulatu dute.

Finantziazioaren harira, Ivan Tellaetxek gogorarazi du egitasmoak pandemiak eskatutako neurri gehitzen zaizkien hiru zutabe nagusi dituela: CO<sub>2</sub> isurketak murrizten dituzten espazioak sortzen ditu, klima aldaketaren aurrean herritarrei zabalduko espazio osasuntsuak dituzten hiriak eratzen ditu, eta hezkuntzan paradigma berrirako kontzientzia lantzen du.

2018an, Urduñan Globus Vermellekin kontaktuan jarri ziren urtean bertan, Lakuako Gobernuak jolastokientzako proiektu bat jarri zuen martxan berdintasunezko irizpideetan oinarrituta, baina Urduñak bazituen arlo horretan urrats batzuk eginda, Tellaetxek gogora ekarri duenez. «Urte horretan bertan, Europar Batasunak klima aldaketaren beharretara egokitutako hiri espazioak birnaturalizatzeko dituzten proiektuetarako lehen deialdia atera zuen, eta, bertan, bi hirik 4 milioi euroko finantzaketa lortu zuten; bat Paris da, eta bestea Bartzelona. Hiriburua katalanean hainbat enpresak, arkitektoak, Udalak, Generalitateak... partzuergo bat sortu zuten, eta 20 milioi euro inbertitzeko plan estrategikoa jarri zuten martxan urtero hamarna ikastetxetan 200.000 euroko kostuko birnaturalizazio prozesuak aktibatuzeko», gaineratu du perma-kultoreak.

Bigurik erantsi duenez, han aurrea hartu dute klima aldaketaren aurkako neurrietan eta aldaketak egiten ari dira eskolatan espazioak birnaturalizatzeko eta aldaketa pedagogikoak egiteko. Eskolan lanek aurrera egiten duten bitartean, Urduñan egindako lan batzuek

eta proiektatuta dauden beste batzuek forma eman diote gauzak egiteko era bati. Iraide Ortizek nabarmendu duenez, gauza askok laguntzen dute urrats berriak egiten, eta bide horretan Udalaren apustu argia ikusi dute. Aipatu duenez, baso eskolaren testuinguruan, adibidez, Txarrazorako bidean dagoen aterpea berritu egin da, aditu bat egon da lanean, proposamen didaktiko bat egin du baso eskola ikasleekin lantzeko, material ona erosi da, zuhaitzen altuerak neurtzeko, lupak izateko... «Horrek denak laguntzen du».

Auzolana eta parte-hartze zabalak ardatz dituen beste ekimen batzuk daude martxan herrian. Foru Plazako lorategian ez dituzte garaiko ohiko lore koloretsuak jarri, «beste lorategi mota bat egin dugu, batzuetan lore batzuk daudela ikusten duzu, aldatzen doa, oraindik latente dago baina datorren urtean potentea izango da... eta orain, irailean, horren aurkezpena egingo da, bisita gidatua egingo dugu eta animatu nahi dugu jendea perrexila, erromeroa edo menda hartzen, honelako landareak ere badituelako», azaldu du udal gobernuaren buruak.

Hurrengo urratsa Urduñako harresia izango da. «Ezin da mapa baten gainean edo argazki batean diseinu bat egin; jendearekin hitz egin behar duzu, prozesuan eta mantentzean parte hartuko duten lagunekin. Hiru urrats nagusi egin behar dira: dagoena ikusi, dauden beharrez, mugak eta baliabideak identifikatu eta helburuak eta helmuga duen proposamena partekatu», dio Tellaetxek, espazio bitxi horretan sor daitekeen ingurune naturalarekin jada amesten ari diren bitartean.



# ELKARLANAREN ALDARRI

## «muraleslian»-en azken mural ikusgarria, Galdakaoko udaletxe parean ikusgai

📁 KULTURA / Xabier Izaga Gonzalez

**D**uela astebe-  
te amaitu  
zuen Lian  
artista k  
Galdakaoko  
udaletxea-  
ren ondoan dagoen mural erral-  
doia, bere azken lan ikusgarria.  
Oso trebea, abila denari *famau*  
esaten diote Ondarroan, eta  
horrela esaten diote askok he-  
rri horretan iaz itsasoan gal-  
dutakoen omenez “Homage to  
those lost at sea” murala egin  
zuen artistari.

Joan den otsailean Galdaka-  
oko Udalak beste lan bat pro-  
posatu zion, horretarako ideia  
orokor bat emanda: elkarlana  
irudikatzea, eta ideia horren  
gainean zehaztu eta diseinatu  
du Lianek. Otsailean bertan  
hasi zen lana prestatzen; ha-  
maika zirriborro egin zituen.  
«Bozeto asko bota nituen»,  
dio. Eta duela astebetetsu  
amaitu zuen mural erraldoia,  
inoiz egin duen handiena.

Galdakaoko Udalak asteon  
prentsa ohar batean esan due-  
nez, udaletxetik gertuko erai-  
kin hori zaharkituta zegoen,  
bertan urteetan aldamiio ba-  
tzuk egon ziren eta ingurua ez  
zen oso atsegina. Hain zuzen  
ere, Udaleko ordezkari baten  
hitzetan, «herri atsegina go-  
bat egiteko bide horretan»  
mural polit bat egitea burura-  
tu zitzaion eta Liani egin zio-  
ten enkargua. «Denen parte-  
hartzea, herria guztion artean  
egitea... hori adieraztea nahi-  
ko genukeela esan genion, eta  
gainontzekoa haren errua da»,  
dio barrez, eta Lianek be-  
te-betean asmatu duela bere  
lanarekin.

Pozik daude Udalean eta po-  
zik herritarrak: «Jende pilo bat  
hurbildu zaio zoriontzera, es-  
kerrak ematera...», dio ordez-  
kari galdakoztarrak.

Ondarroan «Homage to those lost at sea» mural  
ikusgarria egin zuen iaz, itsasoan galdutakoen omenez.  
Bizkaitik irten gabe, elkarlana eta aniztasuna irudikatzen  
dituen beste bat margotu berri du Galdakaon mundu  
osoan zehar hormak margotu dituen artista «famauak». Lian,  
izen artistikoa «muraleslian» duena, horma handiak  
maite dituen «street artist» emakumea.



### MURALA

Udalaren prentsa oharraren  
arabera, zaila zen Juan Bautista  
Uriarte kaleko 61. atariaren al-  
tzealdean dagoen horman mar-  
gotzea, «ertz, alde eta tamaina  
diferenteak baititu». Izan ere,  
margotu beharrekoak urte lu-  
zeetan aldamiioz hesituta egon  
den garaiera handiko pareta  
bat eta horizontal bat, harekiko  
perpendikularra eta terraza ba-  
ten gainean dagoena. Haien  
neurriak, 4,30 x 20 eta 8 x 7  
metro dira, hurrenez hurren.


Goiko aldean, horma hori-  
zontalean, etzanda dagoela su-  
matzen den neska bat ageri da.  
Haren eskuak, aurpegiaren az-  
pian, beste hormara egiten du,  
neskaren ileak bezala. Horma  
bertikalean behera luzatuta,  
beste zenbait esku inguratu  
eta harekin txirikorda bat egi-  
ten dute.

Lianek berak azaldu du lana-  
ren esanahia: «Ile bat hartzen  
baduzu, ile bakar bat, ahula  
izango da eta erraz apurtuko  
da; ez du indar handirik izan-  
go. Baina ileak batu eta txiri-  
korda bat egiten baduzu, ileak  
indartsu bihurtuko dira, txiri-  
korda sendo bat osatuko dute.  
Hori adierazi nahi du mura-  
lak». Eskuen lanak ez ezik, es-  
kuek bere ere badute zentzu-  
rik, ordea: «Hiru esku batzen  
dira muralean: adineko pertso-  
na batena, gazteago batena eta  
besteak baino ilunagoa dena...  
adin eta etnia desberdinetako  
eskuak daude txirikorda elka-  
rrekin egiten». Baita txirikor-  
daren koloreak ere: «Eta kolo-  
reak ditu txirikordak: ikusteko  
modu diferenteak, izaera eta  
estilo diferenteak. Denak ba-  
tzen dira txirikorda egiteko;  
esku diferente horiek ileak ba-  
tzen ari dira zerbait indartsua  
osatzeko, eta indar horrek ko-  
lorea ematen dio ezker aldean  
ikusten dugun pertsonaren





Aurreko orrialdean, murla horma bietan. Ezkerrean, garaiera handiko horma, eta horma zabala goian. Eskuinean, Ondarroako «Homage to those lost at sea» muralaren xehetasun bat. MURALES LIAN



aurpegiari». Bestela ere azaldu du: «Batzen bagara, indartsu egiten gara, eta jendeari, herriari, bizitza ematen diogu, kolorea. Gure artean zainduz, elkar babesten dugunean, indartsuago egiten gara».

Muralaren prestaketa luzearen ostean, astebeteko lana izan du margotzen, «baina egunero 11 ordu sartuta». Hala ere, zenbat eta handiago orduan eta errazagoa dela dio, «eta dibertigarriagoa».

#### ONDARROAN ETA MUNDUAN

Lian, *street artist* bat, kale artista alegia, eta emakumea, AEBetan jaiotako zen, baina mugimendu

sozialen inguruan ibili zalea da, horiek baitira bere sorkuntzaren zutabe nagusiak. Galdakaoko Udalak bere oharrean gogorarazi zuenez, nazioarteko aitortza du, eta mundu osoko bazter ugarian topa daitezke berak egindako muralak. Leitzako Atekabeltzan marraztu zuen murla munduko ehun onenak hautatzen dituen zerrenda sonatu batean sartu zuten duela urte bi.

Ondarroan egin zuen lana amaitu baino lehen, herritarren iritzia jakin nahi zuen, eta Ondarroakoei ez ezik, munduan zehar parte hartu nahi zuten guztiei ere eskaini

zuen horretarako aukera, iritzi horiek artelanean islatzeko asmoz. Oso pozik geratu zen egindako lanarekin, eta herritarrek ere bai, artista *famauak* dioenez.

Baditu gogoan beste proiektu batzuk, baina egin baino le-


henago horietaz hitz egiteak suete txarra dakarrela dio. Sorpresaren bat ematea espero du eta, betiere, mural handiago bat margoztea, «zenbat eta handiagoa, hobe, horma oso handiak margoztea oso gustuko dut», amaitu du.





Unai  
GAZTELUMENDI

# iRRITZIA:





## Parentesiak

**Antton Izagirre**

**U**da badoa eta betor agudo negua. Ez da ni hotz eta euri zalea naizelako, baina uda parteak eguneroko berriketa, albistegi eta eztabaida politikoan utzi digun hustasun eta arinkeria sentsazioak gainditzeko lehenbailehen uda atzera uztea hobe, nahiz eta neguak berekin duen iluna, lana, nekea eta ekaitza.

Ez da oraingoa, ez da berria, uda garaian komunikabideek «udako sugetzararak» sortzeko duten joera eta abilezia. Badirudi pulsu politikoak indarra galtzearekin batera komunikabideak bihurtzen direla parlamentu, ideologo eta kale eragile. Aurtengoan ere, beste horrenbeste.

Nahiz eta negu partean ere, komunikabideek eta sostengatzen dituzten bo-

tere ekonomikoek iritzi publikoa honetara edo hartara bideratzeko ahalmen osoa izan, pentsatu nahi dut –irudipen hutsa eta ustela agian– esku artean ditugun eta eztabaida politikora salto egiten duten berri eta albisteeke beste sendotasun eta pisu bat hartzen dutela udatik bueltan.

Ikusi dugu, nolako lehentasuna eman nahi izan zaion pandemiaren azken bo-lada honetan, kutsatu eta ospitaleratu- en kopuru eta zifra dantzari, kale edanari, horrekin loturiko oldarraldiei eta gau giroan sorturiko zenbait liskarri, arazo politiko larrienen mailara jasoak izan direnean.

Horretan tematu dira diru publikoz sostengatzen ditugun gure gertuko telebista eta irratiak eta hedabide nagusiak.

Udako beroak urtuta edo, gure sen kritikoa ere itzali xamarra izaten dugu, eta lerro editorial horiei jarraitu beste erremediorik ez dugula dirudi.

Ez da zuhaitzak ikustea nahikoa, baxoa ikusteko. Maiz, albiste zenbaitetan azpimarra egiten dutenean, beste hura ezkutatzeko izaten da eta «mozkor borroka» eta gau giroko «ukabilkadaz» entretentuta gauzkaten bitartean, herriarontzat premiazkoak direnak –argindarraren prezioa, osasun arloko ga-beziak, gutxieneko soldata, sakontasun politikoa eskatzen duten politika ausartak– ez dira lerroburu izango; politikari profesionalen kontuak direla esango digute, udako giroaz gozatzeko.

Betor negua, ekarri geurera gihar politikoa, ez soilik futbola. •

## Zer da zuentzat I-11

**Miren Azkarate  
Badiola**

**A**rrazoi ezberdineko zenbait gertakari garrantzitsu datozkigu burura I-11 irakurri edo entzuten dugunean. Batetik duela 20 urte dorre bikiak deusezten ikusi genituenekoa datorkit niri, mundua enegarrenez dar-dar batean jarri zuen hegazkinen ekintza hura. Puf! 20 urte!

Bestetik, Katalunian ospatzen duten Diada eguna iradokitzen dit irailak 11k: urtetik urtera jende gehiagok parte hartzen duen aldarrikapen eguna, manifestaldi erraldoiaren irudiak erakusten dizkigun eguna, Kataluniako independentziaren aldeko oihuak entzuten

ditugunak altu eta ozen. Urtetik urtera niri oilo ipurdia eragiten didan eguna da.

Eta azkenik maila pertsonalagoan ziur nago egun horretan norbaiten urtebetetzea edo data seinlatu bat izango dela bere agendan.

Niretzako, hiru adibideetatik koktail bat egin eta bakoitzetik zerbait eragiten didan eguna da, dardara sortzen didan eguna da, oilo ipurdia jartzen didana eta egun seinlatua da: nire atxiloketa eguna. 19 urte! Puf! Atzo izan balitz bezala gogoratzen dudan momentua, iltzatuta dudana unea eta urtero data iristean nire egunerokoa

hankaz gora jartzen didana, nahiz eta, gezurra badirudi ere, hainbeste urte pasatu diren. Gaur-gaurkoz oraindik egun hauetan gorputz txarra izaten dut, gaizki egiten dut lo eta ez dut gogorik izaten inorekin egoteko eta hitz egiteko. Eta zergatik ez onartu, umore txarra izaten dut eta negar asko egiten dut ere. Berdin du egun osoan zehar komunikabideetan matraka ematen egon AEBetan gertatu zenarekin, berdin du nire bizitzako momentu zoriontsu batean egon, berdin du kurtso berria hastearen prestaketak eta errutinak itzuli... Niretzako I-11 beti egongo da torturari lotuta. •





**Ana Elozegi Serna**  
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

## Suizidatzea... irtenbiderik ikusi ezin denean

**railaren 10a izan da Suizidioa Prebenitzeko Nazioarteko Eguna. Kosta egiten zaigu, eta kosta egiten zait gai horretaz hitz egitea.** Izan ere, idazten hasi aurretik neuk ere birritan pentsatu dut, «beste zeozertaz arituko naiz oraingoan, beste zerbait alaiagoaz». Kezkatzzen nauen gaia da, ordea, batez ere gazteen artean gertatzen ari dena.

Gauza da Aitziber Garmendiak eta beste profesional askok dioten moduan, badela garaia tabu handi honetaz hitz egiteko modu publikoan. Iluntasunetik eta sekretutik argira pasatzeko, hitz egiteko, lotsak kentzeko eta erruak xamurtzeko.

Gertutik bizi izan dugunok badakigu zenbat mugitzen duen heriotza mota horrek, eta jendartean duen pisuagatik eta beste hainbat ezaugarriengatik familiek modu ezberdinetan bizi dute dolua. Askotan erruz beteta, mila galdera buruan, «hau edo hura egin izan banu, esan izan». Pelikula bat egunero, une oro burutik pasatuko balitz lez.

Denborak eta lanketa terapeutiko egokiak xamurtzen dute samina, kalera ateratzeko indarrak hartu eta besteen begiraden pisua sumatzen duzun bitartean. Beren buruaz beste egin duten pertsonen senideek beren auzoetako, herri txikietako lankide eta bizilagunen begiraden pisuarekin bizi behar izaten dute denbora batez. «Hura da bere buruaz beste egin duenaren bikotekidea, ama, ahizpa edo alaba...». Inork seinalatu gabe seinalatuak sentitzen dira. Eta horrek dolua asko korapilatzen du.

Bestalde, heriotza mota hauek batzuetan abisatu gabeko eta beste askotan abisatutako heriotzak izaten dira. Topiko asko daude gai honen inguruan: «Askotan esaten badu, lasai, ez du egingo»; edo «gazte hura ari da lagunartean esaten gaizki dagoela, bizitzeko gogorik gabe, baina garai hauetan normala da, denok antzeko gabilta; hobe da

beste familien gauzetan ez sartzea, gazteek askotan esaten dute, baina txantxetan ari dira...».

Nahiz eta maite dutenentzat samina izugarria izan, suizidio guztiak niretzat ez dira berdinak: pertsona gaztea, heldua edo zaharra izatea, gaixotasun baten kronifikazioak eragindako erabakia izatea, edo bat-batekoa. Horiek guztiek badute eragin handia doluan, eta baita ere zenbateraino uler dezakegun maite dugun pertsonaren erabakia.

**Gazteen suizidioak izugarri igo dira, eta horrek jendarte osoa erne jarri beharko gintuzke.** Benetan ikaragarriak dira datu estatistikoak: nerabeen artean, pandemia garaian arreta psikiatrikoa jaso dutenen portzentajea %50 igo da. 15-29 urte bitarteko adinekoen artean, arrazoi naturaletatik kanpo, lehen heriotza arrazoia da. Eta Gipuzkoan beren buruaz beste egin dutenen portzentajea %20 igo da, trafiko istripuengatik baino gehiago izanik.

Suizidioa iluntasunetik ateratzen jarraitu behar dugu guztion artean: beldurrik gabe honetaz hitz egiten, eskole-

tan prebentzio saioak ematen; Osakidetzak baliabide gehiago jartzen bertako profesionalak prebentzio eta esku-hartze lanak egin ahal ditzaten, gaur egun gainezka baitaude.

Osasun emozionalaren arloan profesional gehiago behar dira, garrantzia ematen hasten ez bagara tsunami hau geldituko duenik ez delako izango.

**Baina hori guztia baino garrantzitsuagoa: denok geure buruari galdetu beharko genioke zer-nolako jendartea sortzen ari garen gure gazteek bizitzen jarraitzeko gogorik ez edukitzeko.** Zer balio mota baztertu ditugun bidean eta zeintzuk lehenetsi ditugun, banakotasuna, bakardadea... Kapitalismo ero honek nora garamatzen! •



Bere buruaz beste egin zuen gazte bat oroitzeko elkarretaratzea. Aritz LOIOLA | FOKU



{ koaderno } Iker Barandiaran

# Irakurri

Seme nagusiak ez du irakurtzeko inongo gogorik izaten. Aspertu egiten dela esaten du, eta nahiago duela beste gauza batzuk egin. Txikiak, aldiz, aurten ikasiko du irakurtzen eta hizki bat idazten asmatzen duen bakoitzean hunkitu egiten da. Nagusiari esaten diot garrantzitsua dela irakurtzen ondo ikastea, bizitzarako funtsezkoa delako. Baina antza ez dit sinisten edo, besterik gabe, ez zaio askorik axola. Kontua izango da motibatuko duen gairen bat aurkitu eta horrekin 'harrapatzea' gutxienez irakurtzeko erraztasuna izan dezan.

Nire aitona-amonon sukaldean aldizkari erraldoi multzo bat egoten zen amonaren josteko makinaren kontra. Aitona "Zeruko Argia"-ren harpide zen gazetarik, banan-banan irakurtzen zituen artikulu guztiak, eta izugarri pozten zen nik haietakoren bat eskuetan hartzen nuen bakoitzean. Eta haren semeak, nire osabak, tarteka ekartzen zizkion astean pilatutako egunkariak eta haiek ere gogoz irakurtzen zituen, ordurako albisteak areago garatuta egon arren.

Oso presente daukat aitona irakurtzen; izan zitekeen sukaldean, salako jarlekuan, zein bere txoko kuttunean, sotoan, alde batean oiloak zituela eta bestean negurako moztutako egurra; han ere, izkinatxo batean ipurtargi bategen 'lagunduta' irakurketa gozatzen.

Hainbeste gozatzen zuen irakurtzen, asteburuetan lagunekin hitzordua egiten zuenean adostutako ordua baino askoz lehenago jaisten zela kale aldera; eta gure etxera etortzen zen aurreratutako denbora horri etekina ateratzeko: guri kasu egin eta jarraian, irakurgairen bat bilatu bezain laster, salako eserlekuan aritzen zen irakurketan isil-isilean erlojuak baimendu artean.

Inoiz proba egin nuen esperimantu gisa ordurako harpide eta kolaboratzaile nintzen "El Tubo" musika aldizkaria irakurtzeko eskainiz; eta hura ere esker-tuta irensten zuen! Pena ez niola inoiz halakoekin argazkirik egin!

Nik ere nonbait jaso nuen bere oinordetza. Txiki-txikitatik ipuinek eta liburuek liluratzen ninduten, baita garaiko komikiek ere. Hala, gerora nire 'paga' komikiak erosten xahutzen nuen. Halako 'adikzioa' neukan behin 'mutilen' komikiak irakurri eta gero, auzoko dendara jotzen nuela gainontzeko komikien bila. Halakoetan, dendako Isabelek ohartarazten zidan: «Baina, horiek neskentzat dira!». Orduan muga horiek sendoak ziren, gaindiezinak, baina niri bost axola eta neskentzat ei ziren horiek ere eskuratzen nituen adineko saltzailearen harridurarako.

Ez nion inoiz kalera irteteari, lagunekin jolasteari zein harremantzeari edo bizitzak ematen zizkigun aukerei proba egiteari utzi, baina irakurzaletasunak ez zuen etsi, gozamen horri eutsi nion eta gaur egun ere hala jarraitzen dut, nahiz eta, eginbeharrek mugatuta, nahi baino gutxiago irakurri.

Are gehiago, egunkari eta argitalpen batzuen harpidetza digitala izan arren, apenas erabiltzen ditut,

Oso presente daukat aitona irakurtzen; izan zitekeen sukaldean, salako jarlekuan, zein bere txoko kuttunean, sotoan, alde batean oiloak zituela eta bestean negurako moztutako egurra...

eta nahiago dut paperean, eskuetan irakurtzea. Hala, aitona egin ohi zuen bezala, ohitura daukat pasa den asteburuko albiste, erreportaje eta iruzkinak astean zehar ikuskatzen jarraitzeko. Aitona hala egiten zuen, neuk ere bai, eta eskua sutan jarriko nuke osabak ere oraindik gauza bera egiten duela.

Zaila da semei irakurtzeak nire eta gure bizitzan izan duen eta oraindik duen garrantzia azaltzea; eta haiek barneratzea. Ez naiz, hala ere, halako irakurzaletasuna izan dezaten tematuko, nahiz eta penatu disfrutatzeak aukera ederra galdu ahal dutelako. Zeinek daki, agian beraien kabuz zaletuko dira egun batean eta lerro hauek irakurriko dituzte. Hori lorpen polit bat litzateke... ji-ji. •



# «Estrategikoa da nazioarteko ikus-entzunezko eduki arrakastatsuenak euskarara ekartzea»

**B**eren seme-alaben hizkuntza ohiturekin kezkatuta zegoen guraso talde batek abiatu zuen «Disney Plus Euskaraz» ekimena. Kezka bera partekatzen duten euskalgintzako eta ikus-entzunezko eragile desberdinak elkartu eta «Pantailak Euskaraz» ekimenaren baitan batu dituzte indarrak.

## **Zein da «Pantailak Euskaraz» ekimenaren jatorria?**

Joan den Euskaraldiaren bueltan ikastolako eta auzoko guraso batzuek (Donostia) aipatu genuen nola lortu zuten Disney Plus plataforma katalanez jartzea. Pentsatu genuen akaso hemen ere sinadura bilketa kanpaina bat egin genezakeela Disney Plus plataforma euskaraz jartzeko eskatuz. Azkenean kezkatuta gaude, guraso euskaldunak izan arren eta txikiak direnean gu bideratzen saiatu arren, jendartean nagusi dira nazioarteko makroekoiztetxe horiek egiten dituzten superproduzioak. Dendetan, iragarkietan, jostailuetan... toki guztietan topatzen dituzu ekoizpen horietako pertsonaiak: Nemo, Frozen, Star Wars... Guraso euskaldunak edo hizkuntzarekin kontzientzia dutenak aisialdia euskaraz bideratzen saiatu arren, ikus-entzunezkoen eduki arrakastatsuenak euskaraz ez daudela ikusita, zerbait egin beharra ikusi genuen.

## **Eta ikus-entzunezkoek gero eta oihartzun eta pisu handiagoa dute.**

Plataformen aroa iritsi da eta azken hamarkadan erabat al-

datu da ikus-entzunezkoak kontsumitzeko modua. 90ean lau telebista kate zeuden eta marrazki bizidunak batez ere ETBn. CIESen datuen arabera, garai hartan EAEko haurren %70ek ETB1eko marrazkiak ikusten zituzten, pentsa. Gaur egun, ETB3k %0,3ko pantaila kuota du, 50 telebista kate daude eta, gainera, jendeak ez du telebista apenas ikusten eta plataformak gero eta gehiago. Euskaldunon erdiek badugu ordainketa bidezko plataformaren bat etxean eta plataforma horietan euskara ez da existitzen. Horri gehitu behar zaio zineman ere euskararen presentzia oso eskas delako, urtean hamar bat film bikoizten dira Jaurilaritzaren programa baten bidez, baina ekoiztetxeentzat borondatezko zerbait denez, ez dute inoiz lortzen Pixar, Marvel, Disney... ekoiztetxe handiek nazioarteko film arrakastatsuak euskaraz ematea. Beti bigarren mailako filmak izaten dira. Hori guztia ikusita sinadura kanpaina bat martxan jartzea erabaki genuen. Bertan erakundeak eskatu genien Disney Plusekin harremanetan jartzeko, egoera azaltzeko eta filmak euskaraz emateko eskatzeko. Hor aipatzen genuen hemengo ekoiztetxei haur eta gazteei zuzendutako filmak euskaraz ere estreinatu behar direla eskatzen zaien moduan –bestela ezin dute dirulaguntzarik jaso–, kanpoko ekoiztetxei ere betebeharrak hori jartzea. Hau da, haur eta gazteen filmak hemen estreinatu ahal izateko derrigorrezkoa izatea euskarazko bertsio bat izatea. Hori izan zen jatorria, Disney Plus euskaraz ekimena, bospa sei gurasok bultzatua.

## **Eta zuen eskaera, ahoz gora egindako aldarrikapena, dezente zabaldu zen.**

Bai, segituan bildu genituen 5.000 sinadura baino gehiago eta oihartzun dezente izan zuen. Erakundeak gutun ofiziala bidali genien eta hortik iritsi zitzaigun Eusko Legebiltzarreko Kultura batzordean gure ekimena aurkezteko proposamena. Otsailean egin genuen. Hortik egun batzuetara, Bizkaian euskaltzale talde batek Netflix Euskaraz herri ekimena sortu zuen. Horrek ere oihartzuna izan zuen eta hila-bete pare batean 10.000 sinadura bildu zituen. Apirilean agerraldi jendetsu bat egin zuten, dagoeneko euskalgintzako eta ikus-entzunezkoen munduko eragile askoren babesarekin. Eta hor mahai gainean jarri zen ikus-entzunezkoen sektorean euskararena streaming plataformetatik haratago doan arazoa dela.

Hausnarketa baten ondoren, erabaki genuen indarrak batu eta Pantailak Euskaraz mugimendua sortzea. Mugimendu hori osatzen dugu Disney Euskaraz eta Netflix Euskaraz herri ekimenek, Tinko Euskara Elkarteak –zinematan euskara sustatzen 25 urte daramatza–, BIEUSE Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteak –duela hiru sortu zen euskarazko bikoizketen eta bikoiztaileen egoera larria salatuzko–, Zinemak Euskaraz ekimenak eta Game Erauntsia Elkarteak –bideo jokoan munduan euskara sustatzeko sortua–.

## **Arazoa orokorra da. Egunean ordu asko ematen ditugu pantailari begira eta pantaila horietan apenas ageri den euskararik.**

## **ALEX AGINAGALDE**

### «PANTAILAK EUSKARAZ» MUGIMENDUAREN BOZERAMAILEA

Pantailari begira bizi gara. Pantailatan hazten eta hezten ari dira belaunaldi gazteenak. Eta askotariko pantaila horietan, apenas dagoen euskararik. Euskarak luzera arnasari eutsiko al dio pantailarik gabe?





Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

*«Ikerketa soziolinguistiko desberdinek frogatzen dute aisialdiko esperientzia dibertigarriek erabateko eragina dutela hizkuntza ohituretan. Egun aisialdiaren parte handi bat pantailetan dago»*



Guk uste dugu euskararen etorkizunerako beharrezkoa dela nazioartean arrakastatsuenak diren ikus-entzunezko edukiak euskaraz ere egotea. Hortik aurrera bakoitzak erabakiko du zer ikusi nahi duen, nola hezi nahi dituen seme-alabak, Disneyko filmak jarri nahi dizkion edo ez... Tes-tuinguru euskaldunetan, herri euskaldunetan edota hizkuntzarekiko kontzientzia dugun gurasoek saiakera egin dezakegun arren, errealitatea da Euskal Herriaren gehiengoak ez dela euskalduna eta ez daukala kontzientziarik edo kezkarik euskararen etorkizunaren inguruan. Errealitatea da seme-alabei nahi dutena ikusten uzten zaiela, dagoena ikusten dutela eta dagoen hori %99,9an euskara ez den beste

hizkuntza batean dagoela. Dagoen hori euskaraz ere izatea garrantzitsua da.

**Dagoena eta erakargarria begitantzen zaiguna. Garrantzitsua da ikus-entzunezkoen mundu bizi horretan euskara ere erakargarria izatea, ezta?**

Badira hainbat ikerketa soziolinguistiko frogatzen dutenak aisialdiko esperientziek, esperientzia dibertigarriek batez ere, erabateko eragina dutela hizkuntza ohituretan. Zure aisialdiko erreferente guztiak eraldunak baldin badira, nekez aukeratuko duzu gero euskara zure hizkuntza bezala. Garrantzitsua da erreferente horiek ere euskaraz egin dezatela.

**Haur eta nerabe euskaldun asko erdaraz aritzen dira sare**

**sozialetan eta streaming plataformetan. Horren zergatiaz galdetuta, erantzuna: «Horrenegatik egiten dute erdaraz».**

Guk babesten dugun kanpainetako bat #3000Twitz izeneko da. Zuzeneko saioak egiteko kanala da, hasiera batean bideo-jokoaren munduan hasi zena eta gaur egun zabalkunde handia daukana, kirol emaldietan adibidez. Milioika pertsona daude twichlariak jarraitzen egunero. Euskal twichlari batzuk hasi ziren kanpaina hori sustatzen, plataforma hori euskaraz ere egon dadin. Katalanek lortu zuten sinadura bilketa baten bidez Twitch plataforma katalanez ere egotea eta bide horretatik doa Euskal Herriko kanpaina. Game Erauntsiak ere babesten du kanpaina hori

eta orain baita Pantailak Euskaraz-ek ere. Mundu berri horretan euskarak tokia egitea oso garrantzitsua da.

**Ozeano handi horretan euskarara arrain txiki eta ahula da eta dena dauka egiteko.**

Oso atzeratuta gaude. Duela 10-20 urte ez zen ikuspegi estrategikorik egon, ez zen ikusi zer zetorren. Telebista digitala iritsi zenean pentsatu zen ETB3 sortzearekin nahikoa zela. Lehen, lautik bat ginen telebista euskaraz ikusten genuenak eta pentsa orain, berrogeita hamarretik bi izanda, kontentua.

**Herritik eta ikus-entzunezkoen sektoretik sortutako ekimenez ari gara. Eta legeak? Erakundeak?**

Datorren urtean 40 urte beteko dituen Euskararen Legeak esaten du Jaurlaritzak neurriak hartu behar dituela harian-harian ikus-entzunezkoen hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna lortu arte, zinemaren eta beste alor batzuetan. 1982ko lege bati buruz ari gara. Gaur egun zinemetan eskaintzen den ekoizpenaren %1 eskaintzen da euskaraz. Legea ez da betetzen eta ez da saiakerarik egin betetzeko. Hori erabat salagarria da.

Guk uste dugu euskal ikus-entzunezkoen lege bat behar dela hau guztia arautzeko. Lehen euskal zinemaren lege bat eskatzen zen, baina akaso orain begirada zabaldu behar da zinemak gain behera dardelako eta film asko streaming plataformetan estreinatzen di-




relako. Ikus-entzunezkoen esparrua bere orokortasunean arautu behar da.

Orain Estatu espainol mailan tramitatzen ari dira ikus-entzunezko lege orokorra, 2018ko Europako zuzentarau bat aplikatzera datorrena. Lege horrek dio, besteak beste, streaming plataformek beren edukien %30 europar edukiei eskaini behar dietela. Eta Estatuko legeak dio horren erdia, %15, espainiar Estatuko edukiei eskaini behar dietela plataformen katalogoek. Guk aldarrikatzen dugu –Kontseiluak bide horretatik zuzenketa bat egin zuen katalanekin eta galegoekin adostuta– %15 horren erdia izan dadila gaztelera ez den hizkuntzetan. Espainiako ikus-entzunezkoen lege orokorren zirriborroak ez du ezer esaten horri buruz. Guk uste dugu garrantzitsua dela gutxiengo bat finkatzea. Gero, lege orokor hori erkidego bakoitzak garatu dezake eta uste dugu funtsezkoa izango dela euskal ikus-entzunezkoen legeak sortzea EAEn eta Nafarroan eta baita Ipar Euskal Herrian ere dituzten eskumenen baitan. Funtsezkoa izango da ahal dena arautzea.

**Berez legeak eskaintzen dituen bideak ikus-entzunezkoen arloan euskarak pisu handiagoa izan dezan, baina erakundeetatik ez dira erabiltzen tresna horiek ezta?**

Berez 82ko Euskararen Legeak dio esparru horiek guztiak –zinema, ikus-entzunezkoak, telebista...– arautuko dituzten legeak euskarari buruzko kapitulu bat izan beharko dutela hizkuntza eskubideak bermatze aldera. Zer gertatu da? Lege horiek ez direla egin. Eta Estatu mailan ere badaude es-



kumenak gauzak arautu ahal izateko.

**Lakuako Gobernuak ikus-entzunezko euskal kontseilua sortzeko legea tramitatzeari ezetza eman dio.**

Oso albiste txarra da eztabaidatzera ere ez iristea. Europa-

*«Euskal ikus-entzunezko kontseilua tresna oso eraginkorra izango litzateke hizkuntzaren gaia ere arautzeko»*

ko herrialde aurreratu guztiek daukate ikus-entzunezko kontseilu bat; Estatu espainiarren Kataluniak, Andaluziak eta Valentziak –onartu berri du– badaukate ikus-entzunezko kontseilu bat. Hizkuntzatik haratago doaz, ikus-entzunezko jarduera osoa gainbegira-

tzen dute, publizitatearen eta haurren inguruko araudiak, informaziorako eskubidea, gardentasuna... Guk pentsatzen dugu euskal ikus-entzunezko kontseilua tresna oso eraginkorra izango litzatekeela hizkuntzaren gaia ere arautzeko.

Katalunian, esate baterako, orain tramitatzen ari diren Estatuko ikus-entzunezko legeari zuzenketa egin zion Kataluniako ikus-entzunezko kontseiluak. Hau da, adituz osatutako talde batek legea hartu, goitik behera aztertu eta katalanaren erabilera lege bermatu behar dela eta zuzenketa aurkeztu zuten. Hemen ez dago euskal ikus-entzunezko kontseilurik eta badirudi ez dela egongo, eztabaidatu ere ez dutelako egin nahi. Guk garbi daukagu horrelako erakunde bat beharrezkoa dela, noiz eta ikus-entzunezkoen mundua gero eta handiagoa eta anitzagoa denean, ez da bakarrik telebista.

**Borondate politikoak parte handia dauka, ezta?**

Zalantzarik gabe. Baliabideak egon badaude, kontua da non jartzen den indarra. Adibidez, datu bat emateko; “Conquis” programaren denboraldi batek 1.500.000 euroko aurrekontua dauka. “Frozen” katalanera bikoizteak eta zinemetan banatzeko eskubideak ordaintzeak 80.000 euroko kostua izan zuen Generalitatearentzat. Pentsa “Frozen” katalanez eskaintzeak zer-nolako garrantzia daukan hizkuntzarentzat. Euskaraz balitz, gure parkeetako haurrak “Frozen” euskaraz abesten entzungo genituzkeen eta ez gaztelera, orain egiten duten bezala. Estrategikoa da. Edukiak gustatu edo ez,



iritsi egiten dira eta nazioar-teko eduki arrakastatsuenak euskaraz ere egon behar dira.

**Euskarak toki guztietan egon behar du, ezta? Pantailen aro honetan ez litzateke ikuskerara hori galdu behar.**

Hori da eta falta izan da azken hamarkadan irakurketa hori egitea. Beste batzuek egin zuten eta berriro katalanak aipatu behar ditut. Haiek badaukate Filmin.cat plataforma, katalanezko edukiak bakarrik eskaintzen dituen; 3.500 film eta telesail atal baino gehiago, denak katalanez sortuak edo katalanera bikoiztuak. Hor dago ikuspegi estrategikoa. Legedia eta babes handia izanda ere eta egoera gurea baino askoz hobea izanda ere, hizkuntzaren aldeko borroka etengabekoa da han. Pentsa, Katalunian Ser Irratia katalanez da. Hemen, TVEk astean minutu bat eskaintzen dio euskarari. Galizian, adibidez, sekulako kanpaina egin dute eta lortu dute Galiziako albistegia galegoz izatea TVEn. Hemen badirudi horrelako gauzak lortu ezinak dira, ez dagoela behar besteko babesik... eta egon badago. Euskararen Legeak berak dio telebista eta irrati publikoetan euskararen presentzia bertutuko dela.

**Aspaldi ez genuen ikusi telebista publikoan euskarara bikoiztutako telesailik. ETB1n Norvegiako telesail bat estreinatu dute.**

Euskal Telebista zazpi urtez egon da atzerriko film edo telesail bakar bat bera ere euskarara bikoiztu gabe. Hori hizkuntza propioa duen herrialde batean erabat ezohikoa da, ez dakit beste kasurik ba ote den munduan. Orain

«Azken bost urteetan pantailei begira hazi eta hezi diren hurrek gazteleraz, frantsesez eta ingelesez egin dute. Horiek galdutako belaunaldi bat dira euskararentzat, zaila izango baita dena erdaraz jaso dutenek euskaraz bizitzeko hautua egitea»

estreinatu dute bat, pausotxo bat da. Bernardo Atxagak berak duela hogeita hamar urte esan zuen euskararen etorkizunarentzat itzulpena estrategikoa zela, nazioarteko liburu arrakastatsuenak euskarara itzulita euskara erakargarri egiten duzula. Paradoxa hori orain pantailen munduan, ikus-entzunezkoen munduan, aplikatu daiteke. Guk uste dugu euskararen etorkizunarentzat estrategikoa dela nazioarteko ikus-entzunezko eduki arrakastatsuenak euskarara bikoiztu edo azpidaztea. Horrela euskara erakargarria egiten da.

**Ikuspegi estrategikoa eta euskararen etorkizunarekiko ardua behar dira.**

Zalantzarik gabe. Duela gutxi emandako datuak esanguratsuak dira. Ikusi denez, egungo D eredia ere ez da nahikoa ikasleak euskalduntzeko, hezkuntza eredia aldatu behar da, baina aisialdiak erabateko lotura dauka hizkuntzaren jabetzaren inguruan. Eta egungo aisialdia pantailei erabat lotuta dago.

**Pandemiak areagotu egin du lehendik zetorren joera. Pantailen iraultza izugarria da.**

Europako azken ikerketek diote egunean 11 ordu ematen ditugula pantailen aurrean. Nerabeen kasuan, 12-17 urte bitarteko haur eta nerabeek egunean lau ordu ematen dituzte pantailen aurrean ikasketak orduetatik kanpo. Kalkulatzen denez, egunean lau ordu telebistaren aurrean, bi ordu streaming plataformak kontsumitzen, hiru ordu Interneten eta bi ordu sare soziale-tan pasatzen ditugu. Ikusita aisialdiaren denborarik gehiena pantailei begira pasatzen

dugula eta pantaila horietan ez dagoela euskararik...

**Zer asmo dituzue aurrera begira?**

Gure asmoa da hemendik eta abenduaren 3ra bitarte sindurak biltzen jarraitzea. Era berean, laguntzailea sare osatzen ari gara; laguntzaileei eskatzen zaien konpromiso bakarra gure edukiak zabaltzea da. Beste alde batetik, ikus-entzunezko eta euskalgintzako eragile nagusiekin eztabaidan ari gara ikus-entzunezkoetan euskararen aldeko manifestu bat osatzeko, neurri zehatzak proposatuko dituen egoera aldatzeko. Erakundeei dei bat egin nahi diegu, egoera aldatzeko zer egin daitekeen proposatu eta hori egingarria dela adierazi nahi diegu.

**Izan duzue harremanik erakundeekin?**

Oraingoz ez, baina badakigu egoera aldatzeko beharrezkoa dela erakundeen parte-hartzea. Gure nahia bada erakundeekin bildu eta gaiaren garrantzia eta estrategikotasuna mahai gainean jartzea.

**Eta bitartean gure haurrak eta nerabeak euskaraz egiten ez duten pantailei begira.**

Bai, dagoeneko bada galdutako belaunaldi bat. Azken bost urteetan pantailei begira hazi eta hezi diren hurrek gazteleraz, frantsesez eta ingelesez egin dute. Horiek galdutako belaunaldi bat dira euskararentzat, zaila izango baita dena erdaraz jaso dutenek euskaraz bizitzeko hautua egitea gero. Zaila izango da, baina saiatu behar dugu haien gaztaroan eta helduaroan euskara erakargarria egiten. Galdutako belaunaldi bat izan daiteke.

## ALDARRIKAPEN TAULA

1. Euskarazko ikus-entzunezkoen sektoreko finantzaketa publikoa handitzea
2. EITB indartzea eta euskararen normalkuntzarako tresna bihurtzea
3. Euskarazko streaming plataforma sendo bat sortzea
4. Streaming plataformetan euskararen presentzia lege bermatzea
5. Zinemaren lege propioak sortzea
6. Bideo jokoetan eta sortzaile plataformetan, euskararen presentzia bermatu eta sustatzea
7. Ikus-entzunezkoen lege propioak sortzea
8. Ikus-entzunezkoen kontseilu propioa sortzea, lurralde administrazio bakoitzean
9. Espainiar eta frantziar kate publikoek edukiak euskaraz eskaintzea
10. Koordinazio organoa sortzea, hiru lurralde administrazioetako ordezkari osatua





Jaizki FONTANEDA | FOKU



## IKUSMIRA

# EZ NAZAZU BAKARRIK UTZI, PILOTA

Tristurari idatzi zion Joseba Sarrionandiak, baina poemak, moldatuta, berdin balio lezake Aimar Olaizolak pilotarekiko izan duen eta duen beharra irudikatzen. «Zure laguntza behar dut gauzak aintzat hartzeko/ gelditu eta gauza bakoitzaren balioa sentitzeko/ bizi garen bezala pentsatu ordez/ zelan bizi garen pentsatzeko». Ume-umetatik, banandu ezineko bikotea izan dira goizueta-rra eta eguneko 24 orduak bete dizkion larruzko bola, baina heldu da harreman horri, azken 23 urteetan izan duen eran bederen, amaiera jartzeko ordua. Pilotak bera utzi aurretik utzi nahi izan du Olaizolak pilota, egokiena iruditu zaion unean, bere ibilbidera betirako lotuta egon den Juan Martinez de Irujok egiterik izan ez zuen eran. Ogetako kantxa eta aldagelak banatzen dituen atea ez da zabala, baina ate nagusitik, final bat jokatuz, utziko du pilota. Izan ere, Olaizola II.a ezer izan bada, final irabazlea izan da, egun handietan egin du distirarik gehien. Jon Ormazabal



A blue-tinted photograph of a window with white curtains and a brick wall with three framed pictures. The window is on the left, with white curtains partially drawn. The brick wall is on the right, with three framed pictures hanging on it. The overall scene is dimly lit, suggesting a quiet evening or night.

GAUR8

*ireki gure leihoa*





## > Agerraldia kanpainari doinua jarri diote



NAIZ+

Ibil Bedi musika talde iruindarrak "Agerraldia" abestia plazaratu du, Nafarroako hegoaldean euskal hizkuntza-ren alde ari den eta kantaren izen bera duen kanpainarekin bat eginez.



«Kortesetik Garesera, Agerlanden zabalera, Ebro ibaia goitik behera, Vianatik Zangozaraino, Kodesetik Leirera, ederragorik hau baino». Erromatarrek baskoiak menderatzean sortutako lurzoru publi-

koa izan zen «Ager Vasconum», hau da, «euskaldunen lurra», hitzez hitz.

Nafarroako hegoaldean euskarari kendutako espazioa berreskuratzeko lanean ari da Errigora herri ekinbidea. Horretarako, Agerraldia ekimena abiatu zuen 2020. urteko udazkenean, euskararen eza-gutza bultzatzea, erabilera sustatzea eta euskararekiko jarrera positiboak birsortzea helburu.

Ekimen ugari antolatu dituzte azken hilabete hauetan eta beste hainbat bultzatu; Sartagudako kaleen euskalduntzea, kasu. Orain, Ibil Bedi musika talde iruindarrak bat egin du "Agerraldia" abestiarekin eta asteazkenean bideoklip polit askoa argitaratu zuten, NAIZ+en ikusgai dagoena.

Euskal hizkuntza erabili eta kalera eramateko mezua helarazi dute kantarekin batera Ibil Bedi taldeko kideek: «Belarritik bihotzera bide laburra da, jolas parketik tabernara, udalxetik fabrikara... Bazterrak erdia bagara, jalgi dezagun behingoz euskara».



## > Hiru metroko falo bat Iruñeko plaza batean

Iruñeko bizilagunek Santa Maria la Real eta Lezkairu auzoen artean, Katalunia etorbidean eta Taxoare kalean dagoen oinezkoentzako plaza batean eskultura bitxi bat aurkitu zuten joan den astearte goizean. Hiru metroko altuera zuen falo bat zen, harri-kartoiz egina eta barruan, sendogarri gisa, egurrezko listoiak dituena.



Eguerdian, udal garabi bat bertaratu zen, hura kentzeko. Oraingoan, ez dago argi nork jarri zuen eta nola lortu zuen bertan jartzea.

Ez da Estatu espainolean izan den gisa horretako gertakari bakarra; izan ere, joan den maiatzean Leonen ere antzeko eskultura bat agertu zen birligune batean.





## > Ondarea berreskuratu eta ezagutarazteko proposamenak

Ondarearen Europako Jardunaldien harira, Durangaldeko bost udalerrirekin elkarlanean antolatutako bost proposamen landu ditu Gerediaga Elkartek urrirako. Argazki bilketa, bisita gidatuak, erakusketa eta kontzertu formatukoak dira proposamenak, Garain, Mañarian, Iurretan, Zaldibarren eta Berri-zen gauzatzekoak.

Era guztietako ondarea –naturala, artistikoa, usadioei lotu-



takoa...– dute protagonista Gerediaga Elkartek Ondarearen Europako Jardunaldia dela-eta prestatu dituen bost proposamenek.

Azaldu dutenez, izena ematea doakoa izango da, baina edukiera mugatua izango denez, aldez aurretik izena eman behar da [ejardunaldiak@gmail](mailto:ejardunaldiak@gmail.com) helbide elektronikora idatzita edo 673 00 59 81 telefono zenbakira deituta.

## > Nabarralderen online ikastaroa

Nabarralde Fundazioak “Euskal Herriko Historia” online ikastaroaren bederatzigarren edizioa prest dauka. Urriaren 7tik abenduaren 16ra bitartean egingo dute ikastaroa. Izenematea fundazioaren webgunean egin ahal izango da irailan zehar.

Nafarroako Ikastolen Elkar-tearekin elkarlanean antolatu-zen duen ikastaroak berriz ere «itzal handiko» historiala-rien parte-hartzea izango due-la nabarmendu dute; besteak



beste, Joseba Asiron, Idoia Arrieta, Mikel Soraren edo Jose Louis Davantena.

Guztira, 90 orduko ikastaroa da, «historiaurretik hasi eta 1936ko gerraraino, Orreagako batailatik, 1200 eta 1512ko konkistetatik edo karlistadetatik» igarotzen den ibilbidea eskaintzen duena.

Esan dutenez, Euskal Herriko historiaren irakurketa orokor eta sintetiko bat eskaintzen dute, «ikuspegi propio batetik landua».



## > Errealitate areagotuko jolas kolaboratzailea

BabelAR du izena eta 7 eta 12 urte arteko ikasleentzat diseinatuta dago. Errealitate areagotuan oinarritutako jolas kolaboratzaile bat da, doakoa, ikasleek hizkuntzei buruz duten ezagutza aktibatzeke eta eleaniztasuna balioesteko.

Tabletean edo telefono mugikorrean instalatu daitekeen aplikazioa erabiltzen du, eta 14

hizkuntza erabil daitezke. Babel «oroimen arazoak dituen eta laguntza berezia duen maskota txikia da», eta ikasleek lagundu behar diote hizkuntzei buruz duten ezagutzaren bidez, azaldu dute.

Proiektuan, EHUko Donostia Research Group on Education And Multilingualism (DREAM) ikertaldea hartu du parte.







**Rosa Arruabarrena Santos**

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria


## Fakturazio digitala: beste azkoin-biraketa bat digitalizazio-prozesuan

**U**kaezina da digitalizazioak protagonismoa hartu duela industria- eta gizarte-arloan azken urteotan. Covid-19aren pandemiak eragindako krisiak prozesua bizkortu besterik ez du egin. Fakturazio digitala edo elektronikoa kontuan hartu beharreko beste elementu bat da, bai ekin-tzaileentzat, bai merkatua eraldatzeko prozesura egokitzten ari direnentzat. Jarraian, haren ezaugarri garrantzitsuenak azaltzen dira, berehala hartu eta bete behar baitira.

Faktura elektronikoa bitarteko informatikoen bidez formatu elektronikoa sortutako zerga-dokumentua da, paperezkoa ordeztzen duena, legezko balio bera eta zerga-ondorioak gordezten dituena, baina paperezko bertsioan kontuan hartu gabeko segurtasun-baldintzak dituena. Fakturazio elektronikoa faktura elektronikoa erabiliz fakturatzeko baino ez da.

Hala ere, formatu batetik bestera igarotzea ez da agerikoa, fakturazio elektronikoa araudi-kate baten bidez zuzentzen baita, Europako zuzentarauetatik hasi eta EAEko foru-arauekin amaituz. Izan ere, ez da neurri berritzailea, aspalditik dago Europako hainbat herrialdetan, hala nola Danimarkan, Finlandian, Suedian edo Portugalen. Orain, Billentisen txostenak dioten bezala, atomizazioa da arazo nagusia. Kalkuluen arabera, 40 legedi baino gehiago daude Europako faktura elektronikoa erabilerari dagokionez, eta horrek zaildu egiten du eskualdeen arteko elkarreragingarritasuna. Arazoa konpontzeko, 2018tik, Europar Batasunak estatu kideetako erakunde publiko guztiak behartzen ditu faktura elektronikora egokitzera Europako estandar batean. Zehazki, egokitzapen horren ezarpena EAEn TicketBai proiektuaren bidez gauzatzen ari da, zeina hiru foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak partekatzen baitute.

TicketBai fakturazio- eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko tresna bat da, eta iruzur fiskala ekiditea du helburu nagusi (eskudiruzko ordainketen eta B kutxen gaineko kontrola barne), non, aldi berean, administrazio publikoekiko harremanak erraztuko dituen. Proiektuak betebeharrak legalak eta teknikoak ezartzen ditu fakturazio-softwarean, EAEko Ogasunei aukera ematen diena jarduera-sektore guztietan gertatzen diren diru-sarrerak kontrolatzeko. Hori dela eta, onda-



Ilustrazioa: Rosa ARRUBARRENA

eta negozioaren barne-jarduerekin integratu ahal izango dute, izapidetze-zikloak laburtu ahal izango dituzte, kobrantza barne, edo giza akatsak murriztu; paperezko fakturek behar duten biltegi-espazioa ere murriztuko dute. Laburbilduz, fakturazio sistema berria ezartzea beste ekarpen bat izango da garapen iraunkorrerako, eraginkortasuna hobetu eta kostuak aurreztuko baititu.

TicketBai ezartzeko (Bizkaian Batuz), zergadunek egiaztatuta izan behar dute tiketak edo fakturak igortzeko erabiliko duten gailua (ordenagailuak, kutxa erregistratzaileak, TPVak edo sal-tokiko terminalak, etab.). Gailuaren softwareak aukera eman beharko du: (1) QR kode bat eta TBAI (kate alfanumeriko bat) fakturan edo tiketean sartzeko eta (2) transakzioaren informazioa, terminala, programa eta erabiltzailea identifikatzen dituen azterna jasoko dituzten fitxategiak sortu eta bidaltzeko. Transakzio bakoitzeko fitxategi bat bidaliko da (EAEn kasuan, XML formatuan) Foru Ogasunera, hark zehaztutako epe eta moduan, esan bezala QR eta TBAI barne dituena. Gainera, bidalitako fakturak ziurtagiri bat izango du, faktura sortu duen softwarea manipulatu ez dela bermatzeko. Hartzaileak telematikoki jasotzen duen faktura edo tiketa PDF dokumentu sinatua izan daiteke, edo irudi bat, eta ez du zertan Ogasunera bidaltzen den XML fitxategiaren informazio bera izan. Ondorioz, enpresa bakoitzak bere softwarea egokitu beharko du, edo fakturazio-prozesua kanpora atera edo dagokion foru-ogasunarekin komunikazioa ahalbidetzen duen softwarea eskuratu.


TicketBai geldiezia da jada, eta 2022ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean pixkanaka, Bizkaian izan ezik, 2024ra atzeratu baita. Aldez aurretik egiten dutenek zerga-onurak izan ditzakete, eta geroago egiten dutenek, zigorra. Beraz... •

sunak edo zerbitzuak tarteko edo amaierako bezeroei saltzeko jardueren ordainketa jasotzen duen EAEko enpresa, aholkularitza edo bulego orok betebeharrak legal eta tekniko batzuk ditu. Bere alde, azpimarratu behar da fakturazio elektronikoa salto-kien, enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen digitalizazioa bultzatuko duela. Horiek kudeaketa ekonomikoko gainerako aplikazioekin



# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



IGNACIO ETXANDI

## ARRANTZALEEN HAMAIKETAKOA

Argazkilari askok utzi digute beren irudietan itsasoaren, haren kemenaren, portuen, arrantzaleen, sareak josten ziharduten emakumeen, erronken, naufragioen eta gerren ikuskera. Horietako bat Konarzewski izan zen; Donibane Lohizunen bi-zi zen poloniar hark bere kamerarekin olatuen energia atzematen jakin zuen XIX. mendearen amaieran. Beste batzuek, hala nola Pascual Marin, Galarza eta Ricardo Martinek, Donostiako Pasealeku Berrian lehertzen ziren olatu erraldoien argazkiak egin zituzten XX. mendearen lehen herenean. Federico Scheneidhoferrek Arando Handiko (Pasaia) olatuetan noraezean zeuden itsasontzien irudiak utzi zituen. XIX. mendearen bigarren erdian Valentin Marinek, Hermenegildo Oterok eta beste batzuek arrantzaleei atera zizkieten argazkiak Donostian. Sigfrido Koch Bengoetxeak eta Jose Ortiz Echaguek arrantzaleen ikuspegi piktorikoena erakutsi ziguten XX. mendearen lehen erdian. Artikulua ilustratzen duen irudia Ignacio Etxandi margolari eta argazkilari donostiarak (1912/1952) egin da; bertan, arrantza talde bat ageri da hamaiketako egiten, Donostiako portuan. Argazkia joan den mendeko 40ko hamarkadan egindako multzo batekoa da.



*ireki gure leihoa*



**GAUR8**

